



Zabaleta, Binakako hirugarren txapelaren bila / 5



Hamabostaldi solidarioa

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak ongi etorri ekimena antolatu du / 2-4



Kutxa Birari gaur harrera egiteko guztia prest Altsasun eta Arbizon / 12

Sakanako Mankomunitateak 4,8 milioi euroko aurrekontua onartu du / 7

Arakilgo nekazaritza bioaniztasunaren hazien zaintza sarea sortzear / 11

June Kintanarendako sekulako kolpea izan da Europako Jaurtiketen Kopan ezin aritu izana / 20

Aixita bertso sariketa lehenengo aldiz eginen da Irurtzunen, Euskal Herriko bertsolariekin / 23

Sakanaoptika
optika eta kontaktuko erretinak

Presta zaitez udaberrirako!

Intxostia zeharbidea 10 (Altsasu)
948 563 124 | www.optikasakana.com



Hamabostaldi solidarioan parte hartuko duten eragileen ordezkariak, ekimenaren aurkezpenean.

Sakana haran anitza da

Altsasuko Iortia zabalgunea "errefuxiatu eremu" bat bihurtuko da 'Migranteak eta errefuxiatuak ongi etorri' ekimenaren barruan. Hainbat guneren bidez "hausnarketa" bultzatu nahi du Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

"Zer egingo zenuke zuk bat-batean dena utzi beharko bazenu? Edo zure seme-alabei jaten emateko? Eta zu errefuxiatu bazina?". Sakanako dendarien elkarteko erakuslehoetan egun hauetan irakur daitezkeen galderetako adibideak dira. Erantzuna maiatzaren 15ean Altsasuko zabalgunean egingen den *Migratuak eta errefuxiatuak ongi etorri Sakanara!* ekimenean erantzunen dituzte. Behintzat sakandarrek "hausnartzea" nahi dute Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatu duen hamabostaldi solidarioarekin. Ibarreko hainbat eragilerekin batera elkarlanean antolatutako ekimena da: besteak beste, Sakana Harrera Harana,

Tarima Beltza, Zaporeak elkarteak eta Help-Na Nafarroako suhiltzaile boluntarioen elkartea. Hamabostaldiaren jarduerak *Gibraltar go itsasartearen zabalean, 25 urte, 25 istorio* erakusketarekin eta Fernando García Arévalo fotokazetariaren hitzaldiarekin hasi ziren.

"Sakana haran anitza da, eta hori azpimarratu behar dugu. Edozein tokitatik etorritako pertsona ongi etorria da. Gainera, momentu honetan beste diskurtso batzuk eta gorroto mezuak entzuten ari gara". David Oroz Sakanako Mankomunitateko lehendakariak "herri anitza" aldarrikatu nahi dutela azaldu du, "anitzartekotasuna eta kulturantzutasuna da aberastasuna".

Migratuak eta errefuxiatuak ongi etorri hamabostaldi solidarioari hasiera eman zion Orozek, gogoratuz "gu beste garai eta egoera batzuetan errefuxiatuak izan garen bezala beste tokitara bizi hobe bat bilatzera joan garen bezala". Galdera luzatu zuen: "Orain zer egin behar dugu guk?". Bizi hobe bat "merezi eta nahi" duten horiei "ongi etorria" eman.

Kulturartekotasuna

Bego Zestauk Anitzartean Kulturartekotasun zerbitzuko teknikariak azpimarratu duenez zerbitzuak hamalau urte daromatza aniztasuna "kulturartekotasunaren" bidez kudeatzen. "Jatorri anitzeko Sakanara etorri diren guztien arteko beneta-

ko hartu emana sustatuz, giza eskubideen barruan eta elkarbizitza baikor baten bideak erakiz". Zerbitzuaren helburuetako bat, hain zuzen, Sakanara bizitzera etortzen den edonor "berdin dio zein jatorri eta egoeratan dagoen", ahalik eta harrera egokiena eta duinena eskaintzea da: "Horretarako inklusio bideak irekitzea, elkarbizitzan modu hain ezkorrean eragiten duten zurrumurruek desaktibazioan lan sakona egitea eta elkarbizitza baikorrean jartzen edo sendotzen joatea".

"Egiteko hori ezinezkoa izango litzateke gizarte eragilerik ez balego". Zerbitzuak antolatzen dituen ekimenak sakandarrek proposatutakoak izan ohi dira, egunotan egiten ari den hamabostaldi solidarioa bezala. Tarima Beltza antzerki taldeko kide batek *A la deriva* antzezlanak Zaporeak elkartearekin elkartasunean egitea proposatu zuen, "baina ezin zen horretan bakarrik geratu, zer bait gehiago egin behar genuen". Gizarte eragile gehiagorekin elkarlanean, argazki erakusketak, hitzaldiak eta maiatzaren 15eko ongi etorri ekimena antolatu dute.

Migrazioak

Errefuxiatuak migratuak dira, baina migratu guztiak ez dira errefuxiatuak. "Errefuxiatu bat

hainbat egoeratik bere biziaren arriskuan ikusita bere sorterritik migratu egiten duena da, bere biziaren salbatzeko", azaldu du Zestauk. Bere sexu orientazioagatik, gerrate batengatik, arrazoi politikoengatik eta abarregatik izan daiteke. Migratzaileak dira, baina errefuxiatuak "babes bila" uzten dute haien herrialdea. "Orain Siriakoa dugu buruan, baina historian zehar asko izan dira".

Migratzeko arrazoiak ere asko izan daitezke: "Ekonomikoak, lanekoak, ikastekoak, maitasunarenak... komunean duten gauza da mugitzen direla". Herrialde batetik beste batera joaten direla. Hala ere, migrazio mota asko ere badaudela gogoratu du Zestauk, herritik hirira egiten direnak, esaterako. Sakanara harrera harana dela aldarrikatzeke, beraz, edozein arrazoi dela eta migratutako ongi etorria emateko antolatu dute hamabostaldi solidarioa.

Lehen lerrotik

Fernando García Arévalok "lehen lerrotik" bizi izan ditu Afrikatik Europara iristen diren txalupen etorrerak Gibraltar go itsasartearen. Hamabostaldi solidarioa irekitzeko fotokazetariaren argazki erakusketak mustu dute Iortia kultur gunean erakusketak aretoan. García bertan egoten da argazkien atzean dauden istorioak kontatzen, eta asteazkenean Gibraltar go itsasarte zabalean, 25 urte, 25 istorio erakusketaren eta liburuaren inguruko hitzaldia eman zuen. Errefuxiatuen kanpamenduetan lan egiten duen Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakundearen lana ezagutzeko aukera izanen da maiatzaren 12an, asteazkenean, 18:30ean, Iortia kultur gunean. Zaporeak erakundeko kideek Greziako Lesbosko errefuxiatu kanpamenduko egoeraren berri emango dute.

Errefuxiatu kanpamendua

Maiatzaren 15ean Altsasuko Iortia zabalgunea errefuxiatu kanpamendu bat bihurtuko da 10:00etatik 14:30era. Hamabostaldi soli-



darioari amaiera emateko *Migranteak eta errefuxiatuak ongi etorri* ekimen handia antolatu dute, eta Sakanako dendarien elkarteko dendetako erakusleihoe-tan eta sare sozialetan planteatu-tako galderei erantzunak aurkitzeko aukera izanen da, "hainbat galdera Sakandarrak hausnarketara gonbidatzeko eta enpatia txiki bat izatera gonbidatzeko". Esaterako, "zer egingo zenuke zuk dena utzi eta beste herrialde batera joan beharko bazenu? Nola nahiko zenuke tratatzea migrante bazina? Pentsatu al dugu noiz-bait nola eragiten duten zurrumurru ezkorrek?".

Altsasuko "errefuxiatu eremuan" galderak erantzuteko guneak izanen dira. Alde batetik, zurrumurrei aurre egiteko gunea egonen da Sakana Harrera Haranaren eta Juan Higuero zurrumurruren aurkako agentearen eskutik. Gune horretan "zurrumurruren kontrako betaurrekoak" jartzera gonbidatuko dituzte bertaratukoak, "errealitatea hobeki ikusteko". Apurtutako zurrumurru baten-gatik lore bat jasoko du jendeak. Ekimenean Help-Na suhiltzaile boluntarioen elkarteak ere parte hartuko du. Errefuxiatuen eremu-tako bizitza eta errefuxiatuen bizitzaren berri emanen dute boluntarioek. Zaporeak elkarteak kanpamenduetan duten sukalde baten simulazioa egingen du, eta haien lana erakutsiko dute.

Altsasuko institutuko batxilergoko ikasleak aurten errefuxiatuen eta migranteen gaia lantzen ari dira, eta ikasitakoarekin tribiala sortu dute. Tribial honetan errefuxiatuen egoera, migrazioa, Giza Eskubideak eta abar lantzen dira, eta maiatzaren 15ean Altsasuko Iortia zabalgunean izanen dira jolasa elkarbanatzeko. Errefuxiatu eremu berezi honen barruan ere Giza Eskubideen txokoa izanen da eta eskubideen egoerari buruz hausnartzeko aukera izanen da, Pantxika Lamurren laguntzarekin.

Arte eszenikoak

Eguerdian Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako Oihuarima taldeak dantza emanaldia eskainiko du. Izaro abeslariaren *Errefuxiatuena* abestia izanen da dantzari-ek jarraituko duten doinua. *Migranteak eta errefuxiatuak ongi etorri* ekimenari amaiera emateko arratsaldean, 19:00etan, Tarima Beltza antzerki taldeak *A la de-*



Egitaraua

Maiatzaren 15era arte

- *Gibraltargo itsastartearen zabalean, 25 urte, 25 istorio* Fernando García Arévalo fotokazetariaren argazki erakusketa. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan, astelehenetik ostiralera 12:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan emanaldiaren aurretik eta igandetan 18:30etik 19:30era.

Maiatzaren 12

- **18:30** Zaporeak GKEko kideen hitzaldia: Lesbosen egiten duten lanaren eta egoeraren berri emanen dute. Iortia kultur gunean.

Maiatzaren 15

Migratuak eta errefuxiatuak ongi etorri Sakanara! Ekimena. Iortia zabalgunean.

- **10:00** Errefuxiatuen kanpamenduen irekiera:
 - Errefuxiatuen errealitatea ezagutzen.
 - Zurrumurruren inguruko hausnarketara.
 - Txapak egiteko tailerra.
 - Janari banaketaren simulazioa.
- **12:00** Pantxika Lamur giza eskubideekin!
- **13:00** Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako Oihuarima taldearen dantza saioa.
- **14:00** Itxiera.

riva antzezlan eskainiko du Iortia kultur gunean. Sarrerekin Iortitakoa Zaporeak GKErendako izanen da. *A la deriva* antzezlan Médicos del Mundo GKEk sortutako antzezlan da, eta hainbat esketxen bidez errefuxiatuen egoeraren eta bizien berri ematen du. Drama bat da, baina umorearendako tokia ere badago. Altsasuko antzerki taldearendako erronka bat izan zen antzezlan. Sarrerek Iortia kultur gunean salgai daude.



Fernando García Arévalo, fotokazetaria, erakusketaren aurkezpenean.

"Ezin nuen beste alde batera begiratu"

FERNANDO GARCÍA ARÉVALO FOTOKAZETARIA

Itsasoaren beste aldean Afrika ikusten zuen bere herritik. 1992. urtean pateren lehenengo argazkia egin zuen, eta istorio horiek kontatzeko beharra zuela pentsatu zuen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

25 urtez Afrikaren eta Europaren artean dagoen itsasarteko 25 istorio baino askoz gehiago bildu ditu Fernando García Arévalok haren argazki kameraren bidez. Geografikoki gertu dauden arren, bi kontinenteen artean dauden desberdintasun, gehienbat ekonomikoak, azalera nahi izan ditu fotokazetariak. Kazetari gisa bere "beharra" izan da bertan gertatzen dena kontatzea, duela ia 30 urte lehenengo patera iristen ikusi zuenetik: "Ikusten ari nintzena gelditzeko etortzen zela konturatu nintzen, eta denborak arrazoia eman zidan". Maiatzaren 15era arte *Gibraltargo itsastartearen zabalean, 25 urte, 25 istorio* erakusketa Iortia kultur gunean ikusgai dago. Bertan García egoten da, argazki bakoitzaren atzean dagoen istorioa kontatzeko prest. Bildutako lana izen bereko liburuan jaso du.

Zergatik itsasartea?

Nire etxetik Afrikako kostaldea ikusten da. Eguraldi ona dagoe-

nean primeran ikusten da. Orduan konturatu nintzen ogibide honekin amesten banuen, ezinbestean gai honi buruz hitz egin behar nuela. Batzuetan ikusteko zailena aurrean duzuna da.

1992. urtean hasi zinen. Aurretik ez zegoen paterarik?

Madrilen ikasten nuen, eta dagoeneko pateren inguruan zerbait hitz egiten zen. Beti egon dira. Baina noizean behin zeuden, anekdotikoak ziren. Inflexio puntu bat egon zen 1992an, eta zerbait ohikoagoa bihurtu zen. Etxera itzuli nintzen eta itsasartearen inguruko argazki bat egin behar nuela erabaki nuen. Horrelako zerbait ikusten duzue... Gaur egun, ohitu gara horrelako argazkiak ikustera.

"HONI BURUZ HITZ EGIN BEHAR NUEN; BATZUETAN IKUSTEKO ZAILENA AURREAN DUZUNA DA"

Irudi gogorrak ikustera ohitu gara. Baina duela 30 urte, pentsa zer izan zen.

Nola atera zenuen lehenengo argazki hori?

Argazkilaritzarekin autodidakta hasi nintzen. Oso pertsona urdurria naiz eta oso kurioa. Irakurtzea gustatzen zait. Asko irakurtzen dut. Orduan, fotokazetaritzan interesa piztu zitzaidan. Nire kabuz gauzatxo batzuk egin nituen, eta Madrileran ikastera joatea erabaki nuen. Ikasten nuen bitartean agentzia batean lan egiten hasi nintzen. Egun batzuetarako etxera itzuli nintzen, San Roqueko auzo batekoa naiz, eta, dagoeneko pateren ingurukoak entzuten hasiak ziren. Nire aitaren kotxea hartu eta Tarifa alde-ara joan nintzen. Hilabete eta erdi egon nintzen aitaren kotxean lan egiten. Normalean bidaia gaez egiten zuten, Cadizko kostaldera goizaldean iristeko. Momentu horretan ez zegoen telefono mugikorrik ez Internetik. Orduan, goizero Gurutze Gorrira joaten

nintzen galdetzer a ea zerbait ger-
tatu zen. Azkenean, pena eman
nien eta zodiakako gidariak esan
zidan hurrengo egunean haiekin
joango nintzela. Gaur egun ezi-
nezkoa izango litzateke. Baina
edozer gauzarekin bezala, gauzak
landu behar dira. Gauzak ateraz-
teko lan egin. Nire prismatikoe-
kin joan ginen, eta patera ikusi
genuen. Duela ia 30 urte izan zen.
Zerbait berria zen.

Dagoeneko anestesiatuta gaude.
Horrelako irudi asko iristen
zaizkigu, bereziki Lesbosen ger-
tatukoaren ondoren. Jendez
betetako txalupen iritsiera ikus-
tera ohitu gara, baita hildakoak
ikustera ere. Argazkilari gisa
uste dut irudi asko soberan dau-
dela. Ez diezu arretea eskaintzen.
Droga bat bezalako da, behin
hartuz gero hurrengoan zerbait
gogorragoa beharko duzu. Bai-
na 1992an zodiak batean joatean
eta paterak ondoan ikustea...

Gai horiek lantzen jarraitzea era- baki zenuen, ezta?

Gaztea nintzen eta ikusi nuen
jarraitu behar nuela. Behar bat
zen: hau aurpegiaren aurrean
izanda, ezin dut beste alde bate-
ra begiratu; ez duzu beste alde
batera begiratu nahi. Beraz, se-
rie hori egin nuen eta Staff agen-
tzian lan egiten jarraitu nuen.
'El Pateras' deitzen ninduten.
Izena garai horretan zabaldu
zen. Mundu osotik deitzen ziguten
diapositiba eske. Diapositibak
lantzen nituen, teknikoki oso
zaila zen. Eta kanpotik deitzen
zutenean askotan ez zitzairen
ulertzen, baina patera hitza uler-
tzen zitzairen. Duela zenbait urte
honetaz bizitzeko aukera zegoen.
Orain ia ezinezkoa da.

Afrika erretratatzeko beharra sen- titu zenuen?

Bidali ninduten. Bestela nire
kabuz ezin izango nuen. Lan ja-



Fernando García Arévaloren erakusketako 'Kixotea' argazkia.

kin bat egiteko bidaltzen nindu-
ten, baina nik kazetaritza lana
egiteko baliatzen nuen ere. In-
formazioa jasotzeko. Istorio asko
zeudela ikusi nuen. Esaterako,
Dakarren pateretan Europara
iristeko bidaiari hildakoen semeen
amaren kolektibo bat dago. Dirua
biltzen dute bertako gazteak la-
gundu eta alde ez egiteko. Gela-

baten argazkiak egin nituen,
atearen zirrikitutik argitxo bat
sartzen zela. Argazkilaritza ar-
giarekin marraztea edo idaztea
da. Eta nik hori egiten nuen.
Senegalen neukan bizitokia, eta
hortik beste tokietara mugitzen
nintzen. Bahiketengatik itzula-
razi ninduten. Hiltzen bazaituz-
te lan kontua da, baina bahike-

tetan diplomazia kontuak sartzen
dira. Estatuari estorsioa egiteko
erabiltzen dute.

Lan zaila da?

Ogibidea kalean eta lan egiten
ikasten da. Argazki bakoitzaren
atzean lan asko dago. Izugarria.
Odisea bat izan ohi zen lekue-
tara iristea. Ceuta eta Maroko-
ko muga zaharretan txalupan
igotzeko itxoiten ari zirengana
iristea, Melillako harresiaren
saltoak harrapatu ditzakezu edo
ez... Ezkutatuena saila, esaterako,
lortzeko oso zaila izan zen. Itsa-
sartea pasatzeko itxoiten ari
zirela egin nien, eta estaltzeko
eskatu nien. Argazkiak Espai-
niako prentsan publikatu behar
ziren, eta iristen baziren, hauek
ezagutzeko aukera izan zitekeen.
Senarrarendako patera bat or-
daintzeko prostituitzen ziren
emakumeena kontatzeko ere,
auzo hori oso gogorra zen. Hau-
rrak eskaintzen zizkidaten... Ni
zuhurra izaten saiatzen nintzen,
gautz joaten nintzen eta ez nuen
atentzioa eman nahi. Baina az-
kenean txuriak nabarmentzen
gara. Hori da gure arazoa. Ho-
rregatik konfiantza lortzea oso
zaila zen. Beraiekin bizitzera
gelditzen nintzen, beraiek egiten
zutena egiten nuen. Horren
atzean ere dirua dago. Nahiz eta
diru gutxiarekin joan, dirua da.
Gero berreskuraturako duzun di-
rua inbertitzen duzu. Egun,
ezinezkoa da.

Nola sortu zen liburua egiteko au- kera?

1992. urtean hasi nintzen eta
2017an, 25 urte betetzen zirenean,
material hau guztia neukan ez
bilduma bat egitea erabaki nuen.
Materiala fotokazetaritza hutsa
da, baina testuak oso askeak
dira. Haiek kontatu dizkidaten
istorioak dira, modu librean
kontatutakoak. Picassok esaten
zuen bezala irudikatzen dudana

guztia egia da, eta nik kontatu
dudan guztia egia da, baina nik
sortutako narrazioekin. Istorio
bakoitzak irudi bat edo gehiago
izan ditzake. Lehenengo erakus-
keta egin nuen, eta ondoren li-
burua *libros.com* deitutako ar-
gitaletxe baten bidez, mikrome-
zenazgoari esker.

Zein da zure argazki bereziena edo gogokoena?

Argazkiak baino gehiago isto-
rioak gustatzen zaizkit. Baina
lehenengo argazkia oso sinboli-
koa da egitea kostatu zitzaida-
narengatik eta hasiera izan ze-
lako. Gero ere Kixoterena asko
gustatzen zait. Tarifatik itzultzen
nintzen eta gizona topatu nuen.
Praketan itsasoaren uraren gatza
ikusten zen, eta iritsi berria zela
jakin nuen. Atzean haize errotak
ikusten dira, eta oso kixotezkoa
iruditu zitzaidan. Kontran Ka-
nariar irletako gizon gorrotaga-
rria dago, patera bat iritsi zela
eta jendearen kontrako mezu
xenofoboak botatzen zituela eten-
gabe. Prostituitzen zen emaku-
mearena ere gustatzen zait atzean
dagoen istorioagatik... Emaku-
meek haien istorioak kontatu
nahi dituzte. Beharra dute. Bai-
na senarraren baimena behar
dute hitz egiteko eta irudikatutak
izateko. Hildako baten argazki
bakarra daukat. Ez zaizkit gus-
tatzen, esan bezala, anesthesiatu-
ta gaude.

Nola ikusten duzu orain egoera?

Jende berdina etortzen da, arra-
zoi berdinengatik. Uda oso go-
gorra izango da Kanarrietan. Beti
suak itzaltzen lan egiten dugu.
Lurraldean bertan oso gauza
gutxi egiten dira. Jatorrian la-
gundu behar dugu, garapenean
lagundu. Hori da irtenbide ba-
karra. Baina behin egoera ba-
retzen denean, lasaitzen denean,
ez da ezer egiten. Afrikan bizi
izan naizenean bertakoak beza-
la bizi izan naiz. Toki askotan
ongi bizitzen da. Baina Europatik
nahi zuena lortu gabe itzultzen
den pertsona batendako oso
zaila da egia kontatzea. Beste
errealitate bat kontatzen dute.
Auzoetan oso argi ikusten zen
nork zeukan seme-alabaren bat
Europan. Beraz, nola itzuli behar
zara etsituta ondoko bizilagunak
lortu duenean? Oso zaila da.
Horregatik garrantzitsua da
benetako errealitate gordinari
buruz informatzea. Giltza Ma-
rokon dago. Zenbait gauzatan
aurrerapenak egon dira, baina
arazoa jatorrian dago.

**"GAUR EGUN, OHITU
GARA HORRELAKO
ARGAZKIAK IKUSTERA;
ANESTESIATUTA
GAUDE"**

**"ARGAZKI
BAKOITZAREN ATZEAN
LAN ASKO DAGO;
ODISEA BAT ZEN
LEKUETARA IRISTEA"**

C.A. OSASUNA
V.S.
CADIZ F.C.

MAIATZAK 11, ASTEARTEA
19:00-21:00
(IRRATIKO KONEXIOA 18:45ETAN)

EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia

beleixe 107.3 FM
ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



ASTEKOA

AINGERU MIKEO AZPIROZ

Nafarroa, nahiaren eta ezinaren burruka toki ekaitzez betea

Nafarroa. Nafarroa Garaia. Poetarentzat, arragoa, argiaren pausaleku, haizearen ibiltoki zabal, hesirik gabea. Sua eta ura, kondaira urratu baten oihartzun oihukatua. Amets bat baino gehiago, ez oparotasun osoa: nahiaren eta ezinaren burruka toki ekaitzez betea.

Aurten, 500 urte betetzen dira Noingo bataila gertatu zenetik. Orduan, Frantziako eta Gaztelako erresumen arteko gatazkaren giroan, komuneroen altxamenduagatik Gaztela ahul zegoelakoan, Nafarroako Enrike II.ak, Frantziako erregeak lagunduta, Nafarroako Erresuma berreskuratzeko ahalegina burutu zuen. Horretarako, 1521eko maiatzaren hasieran, Andre Foix Asparrotseko jaunak gidatuta, 12.000 oinezkoak, 800 lantzak eta 29 artilleria piezak osatutako nafar-gaskoien armadak errekonkistari ekin zion (gogoan eduki Fernando katoliko-faltsarioak 1512an bortizki konkistatu zuela Nafarroa). Maiatzaren 19rako Iruñea hartua zuten eta Lizarra, Tafalla eta Tuterako altxamenduen bidez gaztelarrak agudo kanporatu zituzten. Baina, Erresuma gotortu beharrean, Logroño erasotzera joan ziren. Hura setiatzen ari

AURTEN, 500 URTE BETETZEN DIRA NOINGO BATAILA GERTATU ZENETIK

Noingo zelaietan gertatu zen bi gudarosteen arteko talka, ekainaren 30ean. Gaztelako gudarosteak nafar-gaskoiena inguratuta, izugarrizko sarraskia egin zuen. Nafarren aldetik 5.000 lagun hil ziren, gaztelarrenetik 300. Zenbat odol isuria Getzeko zelaietan arratsalde sargoritsu hartan!

Geroztik, Nafarroak gorde dituen foruen eskuduntzek etengabeko murrizketak izan dituzte, kontraferoak eta bortizkeria baliatuta. Nolanahi ere, Nafarroaren burujabetza osoa berreskuratzeko sugarrak beti iraun du bizirik eta indartsu, Foruen monumentua lekuko. Horrela, demokrazian sakonduz, etorkizuneko Nafarroa soilik izaten ahal da askea, euskalduna, demokratikoa, ez-patriarkala, lurrarekiko lotua eta justizia soziala bermatzen duen Estatu burujabea. A. Kanpionek zioenez, "lurra nigan oihukatzen dut eta ez dio oihu egiteari utzi eta ez dio utziko ni hil artean".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefona. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Adikzioen egoera COVID-19 pandemian: azken ikerketaren emaitzak

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Osasun Ministerioak eta Drogei buruzko Plan Nazionalak *El impacto de la pandemia en el patrón de consumo de drogas y otros comportamientos con perfil adictivo* izeneko inkesta egin zuen 2020ko azaroaren eta abenduaren artean, eta inkesta horretatik guretzat baliagarriak izan daitezkeen hainbat ondorio atera ditzakegu. Azterketa hori estatu mailan egin zen eta datuak ez daude autonomia erkidegoen arabera bereizita, baina asko lagundu diezaguke joera zein den ikusten.

Hona hemen ondorio esanguratsuenetako batzuk:

- 15 eta 64 urte bitarteko pertsonen dagokionez, argi ikusi da pandemian edari alkoholadunen kontsumoak behera egin duela bi sexueta eta adin talde guztietan. Edari alkoholadunen kontsumoa handiagoa da gizonen artean, eta eguneroko kontsumoak nabarmen egiten du gora inkestatutako pertsonen adinak gora egin ahala.
- Pandemia bitartean, alkoholaren kontsumo intentsiboak behera egin du bi sexueta, adin talde guztietan, batez ere 25 urtetik beherako artean. Bestalde, 15 eta 64 urte bitarteko biztanleen %16k alkoholaren kontsumo arriskutsu bat egin zuen, eta handiagoa izan zen gizonen artean emakumeen artean baino.
- Tabakoaren kontsumoak behera egin du pandemiaren aurretik egindako

kontsumoarekin alderatuta, eta handiagoa da 25 urtetik beherako eta 54 urtetik gorako emakumeen artean.

Zigarro elektronikoen kontsumoak behera egin du bi sexueta eta adin guztietan, eta beherakada hori handiagoa izan da gazteen artean.

- Errezetarik gabeko hipnosedatzaileen kontsumoari dagokionez (somniaferoak eta lasaigarriak), ikusi da kontsumo horrek gora egin duela pandemian. Gorakada hori adin talde guztietan eta bi sexueta gertatu da, baina, bereziki, emakumeen artean (emakumeak dira substantzia horiek gehien kontsumitzen dituztenak).

- Cannabisari dagokionez, argi ikusten da kontsumoak behera egin duela, bai bi sexueta, bai adin talde guztietan, eta batez ere 25 urtetik beherako artean.

- Pandemiaren kokaina gutxiago kontsumitu dela ere ikusi da.

- Herritar gehienek dibertsioz erabiltzen dute Internet, bai pandemiaren aurretik, bai pandemiaren garaian. Patrioiari dagokionez, ez dago sexuen eta adinaren araberrako alderik, 59 urtetik gorako kasuan izan ezik, horietan erabilera zertxobait jaitsi baita. Dena den, nabarmen egin du gora jendeak Interneten pasatzen duen ordu kopurua: pandemia beste, 2,5 ordu pasatzen zituen, eta pandemia bitartean, berriz,

3,5 ordu inguru egon da ordenagailuaren aurrean.

- Apustu etxeetan emandako denborari dagokionez, prebalentziak behera egin du. Handiagoa da gizonengan eta 25 urtetik beherakoengan. Hala ere, online bidezko apustuei dagokionez, ez dago alde nabarmenik pandemiaren aurretik eta pandemia bitartean, eta prebalentzia handiagoa da gizonengan eta 25 urtetik beherakoengan.

Oro har, esan dezakegu behera egin duela substantzien kontsumoak; izan ere, joera hori logikoa da, gaueko aisialdirako guneak itxi edo debekatu baitira, eta horietan, hain zuzen, ematen da kontsumorik handiena. Aipatzekoa da handitu egin dela hipnosedatzaileen kontsumoa (somniaferoak eta lasaigarriak). Horrek esan nahi du pandemia egoera bereziki emakumei eragiten ari zaiela, eta ez, hain zuzen, aisialdi guneetan, baizik eta, segur aski, pandemiaren aurretik ematen eguneroko egoera zaileri aurre egiteko orduan.

Aipagarria da, halaber, Interneten aisialdian ematen ditugun orduen gorakada, pandemiaren aurretik ematen ginen aldean.

Halaber, edari alkoholadunen kontsumoa murriztu bada ere, kontsumoa 45 eta 54 urte bitarteko gizonen artean jaitsi da gutxi. Azkenik, eta proposamen gisa, ulertu behar da nerabeek berdinekin harremanak izateko behar handia izaten dutela etapa horretan, eta, beraz, garrantzitsua litzateke aisialdirako espazio seguruak prestatzea, gaztetxoek behar hori asetu ahal dezaten.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu

COVID-19 kasuak hirukoiztu egin dira apirilean

Guztira 568 sakandar gaixotu dira, aurreko hilabetean baino %334,11 gehiago. Aurten 999 gaixo izan dira

SAKANA

Pandemiaren garapena nolakoa den jakiteko jendeak egunero Osasunbideak argitaratzen duen taulari erreparatzen dio eta horrela badaki bere herrian eta ingurukoetan zenbat COVID-19 positibo izan diren. Apirilak 30 egun izan ditu eta 28 alditan agertu da Altsasu zerrenda horretan, 27tan Etxarri Aranatz, 20tan Arbizu, 16tan Lakuntza, 14tan Irurtzun, 13tan Olatzagutia eta 12tan Urdiain. Gainontzeko herriak 10 egun baino gutxiagotan aipatu dituzte: Uharteko Arakil 8, Bakaiku 6, Etxarren, Unanu eta Lizarraga 4, Ihabar eta Irañeta bitan eta Hiriberri Arakil, Dorrao, Lizarragabengoa eta Ziordia behin. Egutegiaren errepaso horrek apirilean kasuak zein herrietan pilatu diren erakusten du.

Udalerrietako biztanleria eta gaixo kopuruari erreparatuta, orain arte Urdiain da COVID-19 gaixo gehien izan duen herria: %23. Atzetik ditu Etxarri Aranatz (%14,06), Iturmendi (%12,9), Arbizu (%13,98), Irurtzun (%11,39) eta Lakuntza (%10,82). Ehuneko hamarrek langa pasatzear dira Altsasu (%9,89) eta Ziordia (%9,14). Populazioaren %7 gaxorik izan duten lau udalerridaude: Irañeta (%7,69), Ergoiena (%7,57), Arruazu (%7,55) eta Arakil (%7,28). Azkenik, COVID-19 kasu gutxien zenbatu diren herriak dira Olatzagutia (%6,85), Bakaiku (%6,39) eta Uharteko Arakil (%6,34)

Maiatza

Hilabete honetako lehen bost egunetan 68 COVID-19 positibo zenbatu ditu Osasunbideak Sakanan. Etxarri Aranatz eta Lakuntza ari da jotzen gogorren gaitza une honetan. Herenegun arte 21 eta 17 kasu zenbatu zituzten, hurrenez hurren. Maiatzeko lehen bost egunetan Altsasun 13 kasu izan dira. Gainontzeko positiboak horrela banatu dira: Arbizu 5, Olatzagutia 3, Irurtzun, Lizarragan eta Bakaikun bina eta Irañetan, Urdiainen eta Ziordian bana.

Espainiako Gobernuak igandean indargabetuko du alarma

egoera eta ordutik erkidego bakoitzak bere araudia jarriko du indarrean, epaitegiek oniritzia ematen badiete. Igandetik aurrera gertatu daitekeen kezka handia eragin du hainbat pertsonengan eta, batez ere, perimetro itxieran dauden herrietan, han gaitzaren intzidentzia oso altua delako eta hainbat pertsona gaixo edo etxean isolatuta daudelako prebentzio neurri gisa. Epidemia egoerak onera egin duenez, Nafarroako Gobernuak Arbizuren perimetro itxiera kendu du goizaldean. Baina ez Lakuntza eta Etxarri Aranatz eta, gutxienez, beste aste bat luzatu du, ostegun gauerdia. Beraz, bi herrietan iragarritako malgutze neurriak ez dira indarrean sartuko.

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, herrialdeko perimetroa zabalduko da igandean. Horrekin batera, gaueko mugikortasuna 23:00etatik 06:00etara mugatzea proposatu du. Alarma egoera bukatu ondoren, etxeetako bilerak bi familietako sei kideetara mugatzea gomendatu du, era berean ostalaritzako terrazzen ordutegia 22:00ak arte luzatuko da. Arbizuko perimetro itxiera bihar bukatuko da.

Txertaketa

Osasun Departamentuak COVID-19aren aurkako txertaketa-estrategiarekin segitzen du. Lakuntza eta Urdiain bitarteko 495 sakandar Etxarri Aranatzko frontoitik pasa ziren asteartean Pfizerren bigarren txertoa hartzera. Herenegun, berriz, handik pasa zirenak 60 eta 67 urte arteko 592 izan ziren, Astra Zenecaren txertoa jaso zuten. Herenegun ere 60 eta 65 urte arteko Arakil eta Arruazu arteko 168 sakandar Irurtzungo kiroldegira joan ziren txertoa jasotzera. Gaur, berriz, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko 66 eta 69 urte arteko 233 burundarrek dute hitzordua jarria Burunda pilotalekutik pasatzeko. Bestalde, asteartean, Etxarriko liburutegian, 68 eta 69 urte arteko 168 pertsona izan ziren txertoa jaso zutenak. Heldu den astean 58 eta 59 urtekoekin hasiko dira.



Epidemia egoeratik Lakuntza eta Etxarri Aranatz perimetro itxiera ostegun gauerdia arte indarrean izanen da.

Sakanako COVID-19 kasuak 2021ko hilabeteka

Udalerrria	Herria	2021-01	2021-02	2021-03	2021-04	2020an	2021ean	Guztira
Irurtzun		17	9	4	43	183	73	256
Arakil		3	14	3	8	42	28	70
	Aizkorbe	0	0	0	0	0	0	0
	Urritzola	0	0	0	0	0	0	0
	Errotz	0	0	1	0	0	1	1
	Izurdiaga	1	2	0	0	4	3	7
	Etxeberri	0	0	0	0	6	0	6
	Egiarreta	0	0	0	0	6	0	6
	Etxarren	1	2	1	5	5	9	14
	Ekai	0	0	1	0	2	1	3
	Zuhatzu	0	4	0	0	2	4	6
	Satrustegi	0	1	0	0	1	1	2
	Hiriberri Arakil	1	0	0	1	7	2	9
	Ihabar	0	5	0	2	9	7	16
Irañeta		0	0	0	4	9	4	13
Uharteko A.		1	2	0	14	33	17	50
Arruazu		0	1	2	0	5	3	8
Lakuntza		5	3	19	64	47	91	138
Arbizu		5	9	11	63	67	88	155
Ergoiena		0	1	4	12	11	17	28
	Unanu	0	0	0	5	1	5	6
	Dorrao	0	0	4	1	3	5	8
	Lizarraga	0	1	0	6	7	7	14
Etxarri A.		19	14	23	137	158	193	351
	Etxarri A.	19	14	23	136	155	192	347
	Lizarragabengoa	0	0	0	1	3	1	4
Bakaiku		0	4	4	9	6	17	23
Iturmendi		20	0	5	11	17	36	53
Urdiain		5	17	34	30	66	86	152
Altsasu		29	50	53	154	452	286	738
Olatzagutia		6	14	7	18	57	45	102
Ziordia		3	10	1	1	17	15	32
Guztira:		113	148	170	568	1.170	999	2.169

Mank-ek 4,8 milioi euroko aurrekontua du

Ez da inbertsio handirik aurreikusten. Joan den urteko aurrekontuan jasotako Urdalurko ur sarea Satrustegitik Etxarreneraino luzatzeko lanak aurten egitea aurreikusi du ibarreko erakundeak

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak aurtengo 4.830.209 euro inguruko aurrekontua joan den ostegunean onartu zuen, hiru abstentzio izan ezik, gainontzeko botoak aldekoak izan ziren. Ibarreko erakundeak joan den urterako hainbat inbertsio aurreikusi zituen eta, horregatik, aurtengo aurrekontua 2020koa baino 549.247 euro inguru txikiagoa da.

Ur Zerbitzuaren joan den urteko aurrekontuan Urdalurko ur sarea Satrustegi eta Etxarren artean luzatzea aurreikusi zen. Mank-eko presidente David Oroz Alonsok esan duenez, "lanen tramitazioan gaude, afekzioen kontuak lotzen. Gure asmoa da lanak aurten bertan egitea. Eta, ahal bada, eguraldi onarekin egitea". Hori izanen da Sakanako Mankomunitateak aurten egingen duen inbertsiorik handiena. Bestela, "aurten ur zerbitzuan ez da aurreikusi halako lan handirik. Herrietan egiten diren ur hornidura sareen berrirez Mank-ek bere zatia ordaindu beharko du. Bestela, inbertsio txikiagoak izanen dira. Ur ihesen detekzioan segituko dugu lanean". Zerbitzuko langileek erabiliko duten pala txiki bat eta auto bat erosiko ditu Mank-ek eta bakoitzarako 15.000 euro aurreikusi ditu.

Mank-ek Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian ur kontagailu berriak jarri ziren 2012an. Kontagailuek irrati bidez etxeetako kontsumoen berri ematen zion kaletik auto batean pasatzen zen tablet bati. Baina joan den urtean ibarreko erakundea etxe barruan zeuden kontagailuen datuen ohiko irakurketa egitera pasa zen berriro. Orozek azaldu duenez, "bere garaian automatizazioaren aldeko apustua egin zen, baina urteekin ikusi da teknologia hori ez zegoela behar bezain beste



Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitza.

PANDEMIAK MANK-EN ESTRATEGIA PLANA BUKATZEA ERAGOTZI ZUEN ETA HORRETAN DABILTZA

garatuta. Akatsak hasi zen ematen eta, horregatik, atzera pausobat egin dugu zerbitzu hobe eman ahal izateko".

Hondakin Bilketa

Zerbitzuan konpost planta egin eta kamioia erosi zen joan den urtean. Tamainako inbertsiorik ez da egingen aurten. Hala ere, Mank-ek Irurtzunen garbigune bat egitea aurreikusi du. Lehendakariak esan duenez, "Altsasuko baina askoz ere txikiagoa izanen da, Ziordikoaren antza gehiago izanen du". Hura egiteko ibarreko erakundeak 45.000 euro aurreikusi ditu.

Orozek gogoratu du Sakanako delako Nafarroan hondakin bilketa daturik onena duen eskualdea, "baita materia organikoaren bilketan". Presidenteak gaineratu duenez, "aurtengo erroka da Arbizuko tratamendu plantan

dagoen konpostatze planta mar txan jartzea eta han bertan konpostatzea Sakanan biltzen dugun materia organiko guztia. Eta konpostea Sakanan banatzea". Horretarako inbertsio batzuk egin beharko direla jakinarazi du Orozek, zehazki, materia organikoa duten poltsak irekitzeko makina erosteko 146.000 euro bideratu dituzte.

Euskara, Kirola, Kulturartekotasuna, Etxeen zaharberritzea "egonkortuta dauden zerbitzuak dira. Beti daude berritasunak, baina jarraikortasun bide bat dute". Bestalde, ibarreko erakundearen Lakuntzako egoitza berritzeko proiektua idazteko 14.500 euro daude. "Proiektuak, besteak beste, uralitazko teiltatua kentzea eta eraikinaren isolamendu termikoa egitea aurreikusiko du".

Ibarreko erakundeak bere plan estrategikoa egin eta 2020an bukatzeko asmoa zuen. Orozek argitu duenez, "horretan geunden, bai barne mailan, bai kanpora begira. Plana borobiltzeko eta bukatzeko zegoen, baina pandemiak harrapatu gintuen eta ez zigun utzi nahi genuen akabera ematen. Horretan gabiltza".

Artilearen bilketari segida emanen zaio heldu den astean

Astelehenetik asteazkenera, 07:30etik 14:00etara, Arbizuko hondakinen tratamendu plantan jasoko dute

SAKANA

Agorrilean estreinakoz artilea jaso ondoren, Sakanako Hiri Hondakinen Zerbitzuak gauza bera egingen du heldu den astean. Ardiak dituzten sakandarrekin harremanetan jarri dira zerbitzuko hezitzaileak jakiteko ardiei ilea noiz moztu behar zieten. Jasotako erantzunen arabera erabaki dute heldu den astean artilea jasotzeko hiru egun zehaztea. Baina ez dute baztertzeko aurrerago data gehiago zehaztea.

Artilea, ahal bada, zakuetan sartu gabe, Arbizuko hondakinen

tratamendu plantara eraman beharko dute. Hango baskulan pisatu ondoren, horren arabera, ordaindu beharko dute artzainek. Zakuetan eramaten dutenek, handik atera beharko dute artilea. Zerbitzuak artilea Artaxoako Ecofert Sansoain SM enpresara eramaten du, han konpost egiteko egituratzaile bezala erabil dezaten. Artzainek pagatutako dirua enpresen tasari aurre egiteko baliatuko da.

Silo plastikoa ere plantara eramateko aukera dute abeltzainek. Sistema bera erabiliko da.

<p>Maiatzak 7 Ostirala 20:00 Kultur Etxean Euskaraz eta gaztelaniaz</p> <p>Mahaingurua: Eurovelo 1, Ederbidea eta Plazaola.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Gustavo Ortiz de Barron. Plazaolako Gerentea. ■ Aitor Larraza. Irurtzongo alkatea eta Plazaolako Patzuergoaren Presidentea. ■ Idoia Jusue. Biltegiko lantegia. <p>Moderatzailea: Mikel Goldarazena.</p>	<p>Maiatzak 16 Igandea 20:00 Kultur Etxean Euskaraz eta gaztelaniaz</p> <p>Dokumentalak: Mendi Film Festibaleko onena.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Aterpean - Ateri (5') 2020ko MF-eko Sail Ofiziala. Euskaraz - Subt: Gaztelaniaz. ■ Charge (4') 2020ko MF-eko Sail Ofiziala. Ingelesez - Subt: Euskaraz eta gaztelaniaz. ■ Edmund Hilary Ocean to sky (106') 2020ko MF-eko Sari Nagusia. Ingelesez - Subt: Euskaraz eta gaztelaniaz. <p>Aurkezlea: Aitor Elduaian. Sarrerak: 5 euro.</p> <p>Aldez aurreko salmenta: 948 600 412 / 660 419 610 kulturetxea@irurtzun.eus</p> <p>Salmenta arrunta: Lehiatilan ordu erdi lehenago.</p>
<p>Maiatzak 9 Igandea 20:00 Kultur Etxean Gaztelaniaz</p> <p>Cholitas filma. Sarrera 5 euro.</p>	<p>Maiatzak 14 Ostirala 20:00 Kultur Etxean Euskaraz</p> <p>Annapurnako itzulia Unai Razkin, Ramirez de Alda, Naiara Martinez eta Joseba Gandarias.</p> <p>Doako sarrerak, aldeztu aurretik erresebatu behar dira.</p>
<p>Antolatzailea: </p>	<p>Laguntzailea: </p>



Areitio ordenagailuan jardunaldiko beste parte hartzaileekin. Harmailan Eduardo Murugarren, Irurtzango gizarte zerbitzuetakoa.

"Jende larriak parte hartuko du proiektuaren diseinuan"

ZUHAITZ AREITIO REMENTERIA SAKANAKO GARAPEN AGENTZIAKO PROIEKTU ARDURADUNA
Bertan proiektuaren bidez jende jarriarendako elkarlaneko etxebizitza bat sortuko da Arbizun. Halako esperientzien berri izateko jardunaldia egin zen herenegun

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Iparraldeko eta Euskadiko erakundeekin batera eta Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateak Bertan proiektua garatzen ari dira, adinekoen zahartze aktiboa helburu duena. Haren baitan jardunaldia antolatatu zuten asteazkenean. Iortia kultur gunean bertatik bertara edo online jarraitzeko aukera izan zen. "Pitzadura digitala gaingintzeko" antolatatu zuten jardunaldia, "jende larriak galderak egiteko aukera izan zezan".

Bertan proiektuan biztanleriaren zahartze progresiboaren erronkak eta zerbitzu publikoak eskuratzeko dauden zailtasunak elkarrekin aztertzen ari zarete. Baina, lehenik, azalduko diguzu zer den Bertan proiektua?

"DENOK DITUGUN HELBURUAK DIRA ETA, ELKARREKIN, IRTENBIDEA BILATU NAHIAN GABILTZA"

Hego eta Ipar Euskal Herriko hainbat erakundek parte hartzen dugu proiektuan. Aurretik landa eremuan identifikatuta zeuden behar batzuei erantzuna emateko. Komunean ditugun beharrak dira. Behar komun horiek Europako funtsen bitartez garatzeko aukera genuen, eta aurkeztu genituen. Horrela, lau bazkideren bitartez, lortu genuen proiekturako dirulaguntza jasotzea, zahartze aktiboaren inguruko helburu konkretu batzuk lantzeko. Zein behar identifikatu zenituzten?

Behar asko, eta proiektu honen bitartez guztiei erantzutea zaila da. Proiektuan lau helburu ditugu. Batetik, landa eremuetan etxebizitzaren inguruan arazo handi bat daukagu. Ez bakarrik adinekoendako, baina haiendako ere. Esaterako, Sakanan ez dugu behar genituzkeen adina erresidentzia plaza. Bestetik, iruditzen zaigu beste eredu oso interesgarri batzuk badaudela; gainera, pandemiak agerian utzi du zahartze aktibo osasuntsuago bat egiteko beharra. Horregatik, etxebizitzaren inguruan dugun proiektua da beste herrialde batzuetan dagoeneko frogatuta eta funtzionatzen duena: cohousinga (etxebizitza partekatua, espazio publiko eta pribatuak dituztenak). Helburua litzateke horri asko gerturatzen zaion proiektu bat Arbizuko Olatzea hotela zen eraikinean egitea.

Bestalde, landa eremuetan mugikortasuna arazo handi bat da, eta, are gehiago, adineko pertsonen artean. Beste helburu bat komunitate zaintzak hobetzea da. Gero eta herri txikiagoa da, jende gehiago dago bakardadean eta zaintzak hobetu behar ditugu. Eta, azkenik, bakardadearen ondorioa da bakarrik bizi den jendeak askotan arazoak dituela eta, egunen batean zerbait gertatuz gero, inor ez dela konturatzeko. Nolabait, komunitate sistema bat sortu nahi genuke herri txikiak jende bat aktibatzeke zaintza edo alarma egoera hori aktibatzeke. Norbaiti zerbait gertatuko balitz, aplikazio bitartez gizarte zerbitzuak martxan jarriko genituzke pertsona hori artatzeko, laguntzeko edo ikusteko zerbait gertatu zaion. Komunean ditugun helburuak dira horiek eta, elkarrekin, irtenbidea bilatu nahian gabiltza. **Guztiak guztia lantzen ari zarete?** Lau bazkide gaude proiektuan: Iparraldeko Mankomunitatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Agintzari kooperatiba, Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak (ibarrereko hiru mankomunitateen izenean) eta Sakanako Garapen Agentzia.

ASTEAZKENEAN, 18:00ETAN, ARBIZUKO UDALETXEA AURKEZTUKO DUTE PROIEKTUA

Egia da guztiok gabiltzala lau helburuak garatu nahian, baina bazkide bakoitzak erantzukizun handiagoa du batean edo bestean. Sakanan, esaterako, helburu nagusiak dira: kolaborazio etxebizitza Arbizun jartzea eta jende nagusiarendako beste garraio eredu bat garatzea, landa eremuetan beste zerbitzu bat emateko, zerbitzu hobea emateko.

Noiz hasi zineten proiektuarekin? Proiektua, berez, 2020ko ilbeltzean jarri zen martxan. Baina 2016an Sakanan egin zen diagnosi baten ondorioa da. Behar batzuek agerian gelditu ziren. Hori ikusirik, eta beste erakunde horiekin aurretik ere harremana bagenuenez, guztien artean komuneko proiektua aurkezteko pentsatu genuen. Proiektua martxan joan den urtean jarri zen arren, etxeko lanak aurretik eginak zeuden. **Proiektuaren garapenaren zein puntutan zaudete?**

Pandemiak guztiengan eragina izan du. Are gehiago jende larriarengana bideratutako proiektu batean. Joan den urtea oso zaila izan da, proiektu honek eskatzen duelako jende jarriarekin harreman zuzena izatea. Helburua baita beraiekin proiektua gauzatzea. Ez da guk erabakitzea beraiek zer behar duten, baizik eta, beraiei entzutea beraien beharrak zein diren eta proiektua elkarrekin gauzatzea. Oso zaila izan da. Diagnostika egiteko ez da posible izan aurrez aurre elkartzeko, guztia telefonoz egin da. Dena den, diagnosi txukun bat egin dugu.

Aurrez aurre elkartzeko zailtasunak ikaragarriak direla badakigu, baina pentsatu genuen jendeari aukera bat eman behar geniola proiektuaren berri aurrez aurre emateko, beraien parte hartzea, fisikoki, gauzatzeko. Badakigu Sakanako mugikortasuna zein den gaur egun. Eta orain ez bada aurrerago ere eginen ditugu ahaleginak jendeak proiektua aurrez aurre ezagutzeko aukerak izan ditzan.

Proiektua, noizko?

Arbizuko Udalarena da eraikina, eta bertan gauzatuko da proiektua (hainbat pauso eman ditu horretarako dagoeneko). Zailtasunak zailtasun, urte interesgarria izan da. Askok ikasi dugu. Eta antzeko proiektu dezente ezagutzeko aukera izan dugu, eta beraieganetik ikaragarri ikasi dugu. Esaterako, proiektuaren hasieran helburu batzuk

genituen, eta jabetu gara beste era batera egin behar ditugula. Adibide nagusia da hasieran Olatzeako proiekturako zerbitzu batzuk, helburu jakin batzuk genituen martxan jartzeko, baina proiektuaren gauzarik interesgarriena da bertan biziko diren pertsonen parte hartzea. Helburua ez da erresidentzia bat sortzea, hotel bat sortzea. Helburua da jende larriak espazio bat izan dezala bertan bizitzeko, baina modu aktibo batean. Horrek esan nahi du beraiek ere parte hartu behar dutela proiektuaren diseinuan; zer zerbitzu eman behar diren, espazioak definitu behar dituzte... Hori da urte honetan ikasi duguna beste proiektu batzuei esker. Eta hemendik aurrera horrekin hasi nahi dugu. Interesa daukan jende hori guztia gurekin harremanetan jartzea eta parte hartze prozesu baten bidez, guztion artean, administrazioaren eta pertsona horien artean eraikiko dugu proiektu hau. Beraien hitza kontuan hartuz, jakina, beraiek bertan biziko direlako. Jasangarria izan dadin eta, batez ere, parte hartzailea. Eta han biziko den jendea ahalik eta aktiboen izateko.

Mugikortasunari buruzko hausnarketa bide beretik doa?

Zerbait desberdina da. Diagnosian beharrak eta errealtateak azaldu dira. Eta dagoeneko Europan dauden ereduie buruzko azterketa eginga geneukan. Erabaki duguna da proiektu pilotu bat martxan jartzea: jende jarriari eskaeraren arabera mugikortasun zerbitzua eskaintzea. Zertan datza? Sakanan garraio linea batzuk egonen lirateke. Aztertu beharra dugu taxiak edo autobus zerbitzuak izanen diren. Behin hori definituta, sakandarrek garraio zerbitzua behar izanez gero, aukera lukete garraio enpresa edo pertsona abisatu eta jasoko lituzkete zehaztutako leku eta orduetan. Malguagoa izanen den zerbitzu bat izanen da, beharren arabera, ahal den neurrian. Oraindik ez dago martxan, baina aurki jarriko dugu. Lizarraldean halako bat martxan egon zen.

Proiektua noizko bukatuko duzue? Helburu konkretuak betez 2023ko garagartzarotan bukatu behar dugu proiektua. Zailtasunak zailtasun aurrera goaz. Ea hemendik aurrera gai garen guztion artean proiektuari forma emateko eta, batez ere, Sakanak behar dituen zerbitzu horiek lortzeko.



Errozko Lizarra kaleko etxeak eta Arakil gaineko zubia, Urritzolara daramana. ARTXIBOA

Kontzejuak Errozko zubia zabaltzea nahiko luke

Urritzolara joateko errepide bakarrean dago zubia, Errotzen, eta, estua denez, autoak eta furgonetak besterik ezin dira pasatu. Kamioiek, elurra kentzeko makinek eta nekazaritzako ibilgailuek dermioko bidetik joan behar dute herrira

URRITZOLA / ERROTZ

Urritzolako Kontzejuko ordezkariak Arakilgo Udalekoekin bildu dira berriki. Urritzolarrek bilerara aztertzeke eraman zituzten gaien artean herrirako NA-7065 tokiko errepideko zubia zabaltzeko aukera zegoen. Arakil ibai gainean dagoen zubiak 83 metro luze eta 3 metro zabal ditu. Gainera, bertatik 12 tona baino

gutxiago duten ibilgailuak pasa daitezke.

Urritzolako Kontzejuko presidente Fermin Mariñelarena Iraizozek azaldu digunez, "zubiaren zabalera handitzea nahi dugu eta, horrela, handik hondakin bilketako kamioia, elurra kentzekoa edo nekazaritzako makineria handia (zisternak, uzta makinak, fardo makinak)

pasatu ahal izateko. Azken horiek udan ibaitik pasatzen dira". Bestela, tamaina handiko ibilgailu horiek dermioko bidetik joan behar dute Urritzolara. Mariñelarenak nabarmendu duenez, "horren ondorioz bidea hondatu egiten da, eta duela urte batzuk kontzejuak 40.000 euro gastatu behar izan zituen bidea behar bezala konpontzeko".

Tramitazioa hasi berria

Urritzolako Kontzeju presidentek azaldu duenez, "Arakilgo Udala Nafarroako Gobernuako Kultura Departamentuarekin harremanetan jarriko da zubiak kultura babesen bat duen jakiteko. Eta, horren berri jaso ondoren, Herri Lan Departamentura joko du zubia eskatzeko eskaerarekin". Arakilgo Udalak foru administrazioari egindako eskaeraren berri Errozko Kontzejuari jakinarazi dio dagoeneko. Mariñelarenak jakinarazi duenez, ez da aurreneko aldia foru administrazioari zubia zabaltzeko eskaera egin diotena, kontzejuak duela 20 urte pasa ere egin zuelako.

Urritzolarrek Egillorren halako zerbait egin dela azaldu dute. Izan ere, joan den urte hasieran mustu zuten zabaldutako zubia. Lehendik zegoen harrizko zubiaren paralelo, eta hari erantsita, zubi berri bat egin zuten, egitura bakar baten itxurak egiteko. Eta, bestetik, jatorrizko zubia zaharberritu zuten. Izun ere antzeko zerbait egin zuten.

1953

Urte hartan izandako uholdeak Errozko zubiaren erdiko arkuak suntsitu zuen. Zubia eraberritu eta erabilgarri egiteko zementuzko berrikuntza egin zuten. Harrizko beste lau arku ditu zubiak eta iparraldeko aldean haiei dagozkien zubi bularrak ditu eraikuntzak.

Eliza inguruan sareak eta zorua berritzeko lanak egiten ari dira

Urdiaingo Udalak lanak baliatuko ditu oinezkoiei lehenetsuna emateko

URDIAIN

Obretako makinak duela bi aste bueltatu ziren Urdiainera, zehazki Barrenkalde eta Elizazpi kaleen zati bateko euri uren eta saneamendu sareak eta zoladurak berritzeko. Ur hornidura sareak ongi dagoenez, dagoen bezala utziko da. David Oroz Alonso alkateak jakinarazi duenez, lanen "beste helburu bat izanen da eliza inguruan ibilgailuen aparkalekuak ordenatzea. Gaur egun pixka bat gaizki dugu eta lanak horretarako aprobetxatuko ditugu". Alkateak esan duenez,

"lanak baliatuko ditugu oinezkoiei halako lehenetsuna emateko, haiei toki gehiago eskaintzeko eta ibilgailuen abiadura motel-tzeko".

100 metroko tartean egingen dira lanak, 2020an Kaluxa kalean eta udaletxe inguruan egindakoen segida direnak. Lanak finantzatzeko udalak gobernuaren COVID-19 gaitzaren eraginei aurre egiteko 40.000 euroko dirulaguntza baliatu du. Eta beste 60.000 euro inguru jarriko ditu. Orozek azaldu duenez, Elizazpi eta Sargardia kale guztian egingen dira



Denboraldi batean makinak joan etorririk ez da faltako Urdiainen.

lanak, bentaraino. "Proiektua eginda dugu, baina faseka egingen dugu. Diru pixka bat pilatzen dugunean, eta laguntzak aprobetxatuta, berritzen joanen gara".

Bestalde, Urdiaingo herriaren etxea urte hasieratik irisgarria-

goa da igogailua jarri baitu udalak. "Egungo garaietan ezinbestekoa zen gauza bat da igogailua". Gobernuak despopulazioari aurre egiteko 16.500 euro eman zizkion udalari. Hark beste horrenbeste diru jarri zuen.

Tontorretatik presoak etxeratzearen alde

Sarek deituta Sakanako 21 menditara igotzeko deia dago egina larunbaterako. Salbuespenezko espetxe politikarekin bukatzea eta preso eta iheslariak etxeratzea eskatuko da gaineratik

SAKANA
Sareren Izan Bidea dinamikak "elkarbizitzaren, bakearen, konponbidearen alde eta preso eta iheslariak etxeratzearen alde" egin nahi du. Sareko kideek azaldu dutenez, "dinamikak euskal preso eta iheslarien etxeratzearen alde, baita elkarbizitza eta bakearen alde gauden herri-tarrak batu asmo ditu, pausoak emanaz, bidea izan gaitezen. Gizarte aktibazioa eta instituzioekiko lanketa uztartuz, auzi honi behin betiko aterabidea eman nahi diogulako".

Nabarmendu dutenez, "euskal jendartearen eta instituzioen adostasuna dugu preso eta ihes-

lariak pairatzen duten salbuespen legediarekin bukatu eta etxerako prozesuari oztoporik ezjartzeko". Presoen hurbiltzeak izan direla aitortuta ere, Sareko kideen iritziz, "egoera honek ezin du gehiagoan luzatu. Presoak Euskal Herrian egon behar dute eta etxera prozesua garatu behar dute gradu progresioa eginez. Eta senideek ezin dute euren bizia errepidean arriskuan jartzen jarraitu, ez eta espetxean duten senidea ikusi eta ukitu gabe urte erdia baino gehiago igaro".

Horregatik, Saretik bidea egin ari den mugimendurekin bat egitera deitu du, "Biltarien

Sare hau gero eta handiago eta zabalagoa egin behar dugula, etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidea egia bilaka dezagun". Eta larunbatean Euskal Herriko 650 mendi igo eta tontorretara Sareren aldarria eramatera gonbidatu du. Gain horietako 220 Nafarroan daude eta, zehazki, Sakanan 21. Igoera horietako 18 sakandarrek eginen dituzte, gainontzeko hiruak Berriozar eta Burlatakoek.

3.127.326 kilometro

Euskal herritar adina km ibiltzeko helburua du jarria Izan Bidea dinamikak. Dagoeneko milioi bat ibili dira.

Sareren 650 tontor ekimeneko Sakanako igoerak

Herria	Ordua	Tokia	Mendia
Irurtzun	10:00	Plaza	Erga
	10:00	Errozko plaza	Bizkai
Hiriberri Arakil	09:30	Plaza	Madalen haitz
Irañeta	09:30	Hiriberriko plaza	Madalen haitz
Uhartte Arakil	09:00	Plaza	Artxueta
Lakuntza	09:00	Plaza	Berriain
Arbizu	10:00	Unanu	Berriain
Lizarragabengoa	09:30	Elkartea	Mirueta
Etxarri Aranatz	08:30	Lizarrusti	Putterri
	08:30	Lizarrusti	Alleko
	08:30	Lizarrusti	Txaigorri
Bakaiku	12:00*	Plaza	Santa Marina
Iturmendi	12:00*	Plaza	Santa Marina
Urdiain		Plaza	Intsusburu
Altsasu	09:30	Foru plaza	Bargagain
	09:30	Foru plaza	Balankaleku
Olatzagutia	08:30	Plaza	Gainsol
Ziordia	08:30	Plaza	Hirumuga
Berriozar	08:30	Lantzeluze frontoia	Gaztelu
	08:30	Lantzeluze frontoia	Txurregi
Burlata		Irurtzungo plaza	Aixita

*SANTA MARINAN EGOTeko JARRITAKO HITZORDUA

Osasun zerbitzuak indartzea aldarrikatzera

Igandean, 12:00etan, Nafarroako Unibertsitate Publikotik 'Aurrera oinarritzko osasun laguntza' leloa duen auto karabana abiatuko da Iruñeko kaleetan barna. Maiatzaren 15ean, berriz, aldarrikapen bera zabaltzeko manifestazioa eginen da Iruñean

SAKANA
Nafarroako Osasun Plataformak deituta, asteazkeneko moduan, *Osasun etxea zaindu* leloa duen kontzentrazioa egin ziren herenegun. Ohi bezala, Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko osasun etxeen parean kontzentratu zirenek "oinarritzko osasun zerbitzuaren indartze orokorra" exijitu zuten. Plataformako kideek, gainera, despopulazten ari den landa eremuan oinarritzko osasunak duen egoerari erreparatu zioten. Azaldu zuten, "hainbat hamarkadatan gobernuak ezarri duten sistema ekonomiko eta politikoa kapitalaren interesen mende egon da, per-

tsionen interesen mende egon beharrean eta, ondorioz, egungo errealitate gordina da landa eremua hustea eta despopulaztea".

Plataformako kideek landa eremuetako osasun etxeetan eta kontsultategietan "gabeziak duela urte asko antzeman" zirela gaztigatu zuten, zerrenda osatuz: "langileak ez ordezkatzeko, lanpostuetan txandakatze handiegia, langileen prekarietatea, herri-tarren hizkuntza eskubideekiko errespetu falta, instalazio zaharkituak, baliabide material eskasak..." Plataformatik azaldu dutenez, "landa eremuan osasun zerbitzu ona bermatzeko tresnarik onenetako bat da eremu hori

hustu ez dadin eta bertan jarraitzen duten pertsona gutxi horiek osasunerako duten eskubidea errespetatua izan dadin". Hori eta herrialde guztian lehen arretako kalitatezko osasun zerbitzua bermatzeko eskatzeko igandean autokarabana eginen da Iruñean. Eta hilaren 15erako hiriburuan manifestazioa deitu du plataformak.

Etxarri Aranatz

Asteazkeneko bilkurak ere Etxarri Aranatz egiten dituzte. Baina han biltzen direnek ere beharrezkoa jo dute osasun publikoaren aldeko defentsa beste modu batez ere egitea,



Aldarrikapena kalera atera dute.

asteazkenetan joan ezin direnek parte hartzeko, esaterako. Horregatik, eraikinaren sarreran panel bat jarri dute eta nahi duenak esaldi edo mezu baten bidez bere babesa adierazi diezaioteko osasun etxeari eta bertan ari diren langileei.

Hiru hilabetetan Ospa 126 kontrol zenbatu ditu

Errepresioaren kontrako Ospa mugimenduko kideek jakinarazi duenez, ilbeltzaren 1etik martxoaren 31ra arte Altsasun 126 kontrol zenbatu dituzte. Ospako kideen kontaktaren arabera urteko lehen hiruhileko kontrolen %69,04 (87) Guardia Civilak jarri zituen eta gainontzeko %30,95 (39) Foruzaingoak. Mugimenduko kideek jakinarazi dutenez, hiru hilabete horietan kontrol gehien Iruñerako irteeran izan dira 47 (%37,3). Altsasuko kaleetan eta bestelako tokitan 42 kontrol (%33,33) zenbatu dituzte, Gasteizerako irteeran 25 (%19,84) eta Donostiarako irteeran 12 (%9,52). Errepresioaren kontrako mugimenduak joan den urtean 304 kontrol zenbatu zituen Altsasun eta 382 2019an.

Ospa larunbatean, 10:30ean, asanblada eginen du Gure Etxea eraikinean. Bestalde, perimetro itxierak eragindako "polizia presentzia itogarria" salatu dute Arbizuko eta Etxarriko gazte asanbladek.

Arakilen hazien zaintza sarea sortzear

Gaur, 17:00etatik 19:30era, Arakilgo barazki barietateen hazien ugaltze, zaintza eta banaketarako topaketa egingen da Ihabarko kontzeju etxean. Aurretik izena eman beharra zegoen

SASKANA

Ibarreko nekazariak erabilitako 70 landare barietate jaso zituen joan den urtean Arakilgo Udalak. Horretarako propio *Bertako barietateak*, *bioaniztasun haziak* egitasmoa martxan jarri zuen. Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, "jendea sentsibilizatzen ari da bioaniztasunaren berreskuratzearekin, klima aldaketarekin... Arakilen nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako ezagutza handia dago eta galtzen ari zela ikusten genuen. Eta bioaniztasun pila oso denbora gutxian galdu da. Horregatik, udalean uste genuen proiektua beharrezkoa zela".



Emakumezkoa kuiatxo landarea begiratzen. ARAKILGO UDALA

Proiektua lantzen bi urte darama Arakilgo Udala eta joan den urteko ilbeltzean abiarazi zuten.

2020an aipatutako ezagutza jaso eta ibarrean irauten duten barietateen bilketa egin zuten. Agroekologian aritzen den Arrea enpresa kontratatu zuen Arakilgo Udalak, "tokiko ezagutza lantzen du. Proiektu dezente egin ditu. Konfiantza handia ematen zigun bere lan egiteko moduak eta horregatik jo genuen haiengana". Arreako teknikari bat Arakilgo 12 herrietatik pasa zen eta hainbat arakildarri elkarrizketa egin zien, nahiz eta pandemiak erraztasunik ez eman. Ibarreko jende larriarekin egon zen teknikaria. "Ordu askotako lana, elkarrizketa lasaiak. Batez ere ezagutza jasotzeko". Haziak ere eskatu eta jaso dituzte. Ezagutza hori guztia gida edo liburu batean jasoko du Arakilgo Udalak, aurki argitaratzea espero duena. "Guri interesatzen zaigu jendeak hori izan eta erabiltzea".

Alkateak azaldu duenez, "jendeak izugarritzko harrera ona egin digu herri guztietan. Oraindik ere jendea udaletxera etortzen da haziarekin, ganboikoan opatu-

tako kutxaren batean opatuak, edo telefonoz deitzen dute esanez zer duten, edo interesgarria izan daitekeela". Arreako teknikariak haziak gorde, sailkatu eta ikertzen dituzte. Eta orain haziak ematen dituztenengana joko dute teknikariak informazio eske.

Ikastaroak

Joan den urtean txertaketei eta haziak gordetzeari buruzko ikastaroak antolatu zituen Arakilgo Udalak. Olaberriak azaldu duenez, "Aurten, berriz, jasotako ezagutza hori zabaltzen ari gara, eta ikastaroak egiten ari gara". Dagoeneko gaztainondoei eta beste txertaketa mota batzuei buruzko ikastaroak antolatu dituzte. Eta gaur barazki barietateen hazien ugaltzea, zaintza eta banaketarako topaketa izanen da Ihabarren. Atzo, berriz, alubiei buruzko jardunaldia hartu zuen Uharte Arakilek. David Ruiz (Elkea) babarrunen laborantza ekologikoaz hizketatu zuen. Eta Errioxako Angianoko Babarruna egitasmokoek tokiko babarrun eta baba barietateen balioa aitortzeko estrategien berri eman zuten.

ikastolak

hezkuntza eraldatzen



**IÑIGO
ARITZA
IKASTOLA**

ikastola@inigoarizta.eus
San Pedro, 16. Altsasu
948 56 29 51 / 606 03 09 66

**TXIOKA HAUR
IKASTOLA**

txioka.haur.ikastola@inigoarizta.eus
Santokristobarren, z/g. Altsasu
948 37 30 23 / 689 45 41 68

**ANDRA MARI
IKASTOLA**

etxarri@ikastola.eus
Utzubartxiki, 3. Etxarri Aranatz
948 46 02 86

**BANAKAKO
HITZORDUAK**
hartzeko aukera



Ikastolaren parte izan zaitez!

Kutxa Birak Sakanan bi geldialdi eginen ditu gaur

17:00etan, Altsasuko udaletxe parean eta, 19:00etan, Arbizuko kiroldegi parean

ARBIZU / ALTSASU

Iparra Hegoa elkartearen Kutxa Bira ekimenak Sakana bisitatu-ko du gaur. Kutxa Biraren helburua da euskara, herri nortasuna eta euskal kultura bultzatzen duten Korrika, Durangoko Azoka eta ikastolen jaialdiak bezalako ekimenak bertan behera geratzeak sortzen duen galera sentimentalarri aurre egitea, eta, era berean, euskal komunitatea aktibatu eta elkartzeko aukera ematea.

Kutxa martxoaren 20tik eskuz esku dabil. Argentinako Viedman

abiatu zuen bere ibilaldia Kutxa Birak eta hilaren 30 despedituko du bere ibilbidea Seguran. Birtartean eskuz esku dabilen kutxan Amets Arzallus bertsolariak idatzitako *Hitza da gure lurra* testuaz aparte, geldialdia egin duen herri bakoitzean jasotako ametsak edo aldarrikapenak hartzen ditu kutxak bere baitan.

Egitaraua

Altsasuko gaitariak eta Zangitu fanfarrea 16:30etik kaleak girotzen egonen dira. Kutxa Birari 17:00etan udaletxe parean harre-



Dantzariak Kutxa Birari harrera eginen. UTZITAKOIA

ra egin ondoren Iortia kultur guneko zabalgunera joanen dira. Han txalapartariak, bertsolariak, musika, dantzariak... Amets Arzallusen mezua irakurriko da eta Altsasuko herriaren ametsa irakurriko da, Arbizura jo au-

rretik. Han, 18:00etatik, plazan musika izanen da eta arbizuarren ametsak konpartitzeko aukera izanen dute. 19:00etan kiroldegian harrera eginen zaio. Ondoren plazan aate eta ametsak irakurriko dituzte.



Maiatzak bere tokian

Larunbatz geroztik lau maiatza zutik daude. Jende pilaketak saihesteko Etxarri Aranazko Udalak ekitaldia bertan behera utzi bazuen ere, bakarren batek Hartzabalen txara bat jaso zuen. Bakaikun ere ohi baino lehenago jarri zuten maiatza. Iturmendin arratsaldetik goizera pasa zuten maiatza jartzea eta garabiarekin jarri zuten. Ziordiarrek txara bat zutitu zuten.



Errepikak, irailaren 14ra arte

Astelehenez geroztik, Altsasuko eguerdiek melodia berezia dute: ezkila errepika. Astelehenean lau altsasuar izan ziren ohitura berritzeaz arduratu zirenak: Pedro Jimenez, Asier Beramendi, Belen Rubio eta Jesus Bengoetxea. Irailaren 14ra arte eguerdiro ezkila errepika jotzen laguntzaile gehiago izanen dituzte.

Gozamenez lehiaketako film laburren artean aukeratzera

Astelehenera arte gogoko lanaren aldeko botoa emateko aukera izanen dute 12 eta 30 urte arteko altsasuarrek

ALTSASU

Gazteriari eta sexualitateari buruzko programa da Gozamenez, eta bere baitan Altsasun film laburren lehiaketa antolatu dute. Aurkeztu diren lanak www.altsasu.eus webgunean

daude ikusgai. Eta haren bidez ere gogoko film laburraren aldeko boto eman daiteke. Hori bai aukeraketa horretan 12 eta 30 urte arteko altsasuarrek besterik ezin dute parte hartu eta, beti ere, boto bakarria emanez.

Antolakuntzak heldu den ostiralean eginen du sari banaketa. Gozas sariaren banaketa Intxostiapunta gaztegunean eginen da, 18:00etan. Maila bakoitzean sari bat banatuko da. Gainera, lehiaketatik kanpo film labur "sorpresa eta bitxia" ikusteko aukera izanen dute galara joaten direnek. Antolatzaileek aurrez aurreko sari banaketa antolatzen ari dira eta osasun neurriak bermatzeko alde aurretik izena ematea eskatu dute, edukiera kontrolatzeko.



Sari banaketa heldu den ostiralean.

Klinikan objektuen bidez oroimena laguntzen

Josefina Arregi Klinika psikiatrikoaren Eguneko Zentroan oroitzen tailer bat prestatzen ari dira, eta haren bidez aspal-diko oroitzenekin lan eginen dute. Klinikatik azaldu dutenez, "estimulazio kognitiboko teknika bat da, eta iraganeko esperientzien bizipen oroitzena erabiltzen du pertsona oraindian orientatzeko".

Tailerria egin ahal izateko klinikak garai bateko objektuak behar dituela jakinarazi du, esaterako: jostailuak, jolasak, landako edo etxeko tresnak, apaingarriak, eta abar. "Etxean horrelako objektuen bat baduzu, helaraz iezaguzu Altsasuko gure zentrorra".

Ziordiko elkartasun zozketak 12.160 euro bildu ditu

Kirol jarduera sustatzeaz aparte, Ziordiko running taldeak elkartasun zozketak antolatzen ditu. Gaitz arraro bat, Rett sindromea, duen Beatriz Hernando Saezen aldeko zozketa egin du talde zior-diarrek. Dohaintzan emandako 75 sariren zozketarako euro bateko balioa zuten 11.810 txartel saldu dituzte Internet bidez. Gainera, beste 350 euro ekarpen eta donazio bidez eskuratu dituzte. Guztira, 12.160 euro. Ziordiarrek eta haurraren familiak laguntza eman duten guztiei eskerrak eman dizkiete. Neskatxaren gurasoek dutxarako ohatila bat, aldagailu egokitu bat eta paseatzeko aulki handiago bat erosiko dute diruarekin.

Altsasuko Alde Zaharreko Euskal Jaiak

Altsasuko Gazte Asanbladak Alde Zaharreko Euskal jaiak direla eta, egitaraua prestatu du. Atzo *Euskara eta klase sozialak* hitzaldia izan zen gaztetxean. Gaur, berriz, pintxo poteoa egonen da gaztetxeko plazatxoan 18:00etatik aurrera. Bihar aitortza makila 18:00etan emanen dute gaztetxeko plazatxoan. Ondoren, Espartzuk kontzertua eskainiko du.

Materia organikoa bereizteko lehia hastear

Garilaren 3ra arte Etxarri Aranatzeko eta Altsasun egoki berezitako materia organikoa pisatuko du Sakanako Mankomunitateak astero. Kilo gehien pilatzen dituen herriak saria jasoko du

ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Nafarroako Hondakin Partzuergoak hondakin gaikako bilketan sentsibilizatzeko Organikopa lehiaketa antolatu du. Haren helburua da materia organikoren banaketa sustatzea nafarren artean eta, horrela, birziklatzen den organiko kopurua igotzea. Izan ere, etxeetan sortzen diren hondakinen %42 baita materia organikoa eta egoki banatuz gero hura konpost bihurtu baitaiteke, eta hondakindegian errefusa gutxiagok bukatu dezakeelako.

Partzuergoko kide den Sakanako Mankomunitateko Hiri Hondakin Zerbitzuak Etxarri Aranatzeko eta Altsasun arteko



Artilea solte eramatea eskatu zaie artzainei. ARTXIBOA

materia organikoaren bilketa lehia antolatu du. Hondakin bilketa sistema desberdinak dituzte bi herrietan. Zerbitzuetik azaldu dutenez, Etxarri Aranatzeko astelehen eta ostegunetan postetatik bildutako gai organikoren pisua aztertuko da astero. Altsasun, berriz, edukiontzi marroiaren bitartez jasotakoa. Heldu den astetik garilaren 3ra arte izanen da martxan materia organiko gehien biltzen duen herrien arteko lehia. Bi herrien arteko konparaketa egin ahal izateko kg/biztanle adierazlea erabiliko du zerbitzuak.

Zerbitzuko arduradunek gogorarazi dutenez, etxarriarrek gai organikoa kudeatzeko bi aukera dituzte: autokonposta eta atez ateko bilketa. Kubo marroia da parte hartzeko behar den elementu bakarra. Altsasun ere bi aukera daude: autokonposta eta edukiontzi marroia. Edukiontzi marroia erabiltzeko erraztasun handiak daude: nahikoa da izena ematearekin.

Sariak

Materia organiko gehien bereizten duen herriari Hiri Hon-

dakin Zerbitzuak 5.000 euroko balioa duten hainbat hiri altzari emanen dizkio. Hiri altzari horiek Nafarroan sortutako hondakin plastikoekin eginak dira, beraz, tartean daude Sakanan jaso eta birziklatutako plastikoak. Bigarren gelditu den herriarendako ere saria izanen da baldin bi hilabeteetan bere materia organikoko bilketa datuak hobetzen baditu.

Lehiaketaren martxa zein den jakiteko Sakanako Mankomunitateak astero horren berri emanen du kartelen, bere sare sozialen eta www.sakanamank.eus webgunearen bidez. Sariak garilean banatuko dira, Nafarroako parte hartzaile guztien emaitzak publiko egin ondoren.

Informazioa

Hondakin bilketa egoki egiteko materiala eskatzeko, izena emateko edota edozein zalantza argitzeko 900 730 450 doako telefonora dei daiteke edo info@sakanamank.eus helbide elektronikora idatzi daiteke.



Iturriko pilarea konponduta

Gutxi faltako zuen eta, bakarren batek lagunduta, iturria inguratzen zuen itxurako harrizko pilare bat hautsi zen apirilaren 23tik 24rako gauean. Hura konpontzeko auzolana deitu zuen Uharteko Udalak larunbaterako. Eta itxurako pilarea dagoeneko osorik dago. Udalak 1864an erabaki zuen San Bartolomeko iturburutik ura herrira eramatea eta plazan iturria egitea.

Desfibriladorea frontoiaren ate ondoan jarri dute

Bihotzekoak jo dien pertsonekin tratamendu azkar gisa erabiltzeko makina kutxa baten barruan dago

ZIORDIA

Ziordiko Udalak Toki Alai frontoiaren ate ondoan desfibriladorea jarri du berriki. Orain arte igerilekuan zegoen, baina haiek ia urte osoan itxita daudenez, lekualdatzea erabaki zuen udalak. Frontoian hainbat kirolean jolasteaz aparte, adineko ziordiarrek bertan paseatzeko erabiltzen dute eguraldi txarra dagoen egunetan. Desfibriladorearen parean Errekakartea elkarte dago eta pixka bat gorago, udaltea, mediku kontsultategia, jubilatuen egoitza eta gaztetxea daude. Ziordiar ugari ibiltzen diren tokian dago, beraz, makina.

Haren bidez gisa bihotz biriketako bizkortze egiteko oinarrikoa maniobra eta desfibrilazioa egin daitezke. Tratamendu azkar horren bidez gaixo dagoen pertsonari elektrizitate deskarga bat ematen zaio bere



Desfibriladorea Dona Maria kalean.

bihotza bere funtzionamendu egokira bueltatzeko. Trebatutako pertsonak bihotzekoa izan duten pertsonen %75en bizitza salbatuko lukete desfibriladorea eskura izanda. Horregatik, udalak hura erabiltzeko ikastaroa antolatuko du udazken aldera.

Olatzagutiko Udalak igeltsero bat kontratatuko du

Olatzagutiko Udalak lehen mailako kisugile ofizial bat kontratatzeko deialdia egin du. Kontratazioa aldi baterakoa izanen da, lan araubidean, eta lanaldi osoa, astelehenetik ostiralera. 6 hilabeterako kontratua izanen da, urte akabera arte luza daitekeena. Eskakerak hilaren 14ko 14:00ak arte aurkeztu daitezke udaltekoei erregistrotan



948 460 037 Arbizu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 7

ALTSASU Kutxa Birari harrera: dultzaineroak eta Zangitu fanfarrea.
16:30etik aurrera, herritik zehar.

IHABAR Sakanako Agroekologia Eskola. Bertako barietateak topaketa Arakilgo barazki barietateen hazien ugalketarako, zaintzarako eta banaketarako.
17:00etatik 19:30era, kontzeju etxean.

ALTSASU Kutxa Birari harrera eta ekitaldia: txalaparta, bertsolariak, musika dantzariak eta abar. Amets Arzallusen

mezuaren eta Altsasuko ametsen irakurketa.
17:00etan, lortia zabalgunean.

ARBIZU Kutxa Birari harrera: Musika eta ametsen irakurketa.
18:00etan, plazan.

ALTSASU Gazte agenda: Karaokea.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Alde Zaharreko Euskal Festak: Pintxopotea.
AGAk antolatuta.
18:00etan, gaztetxeko plazatxoan.

ARBIZU Kutxa Birari harrera: herriko trikitilariekin eta

dantzariekin. Ondoren, aate eta ametsak irakurtzea.
19:00etan, kiroldegian.

IRURTZUN Mendi jarduerak 2021. Mahaingurua: Eurovelo 1, Ederbidea eta Plazaola.
Hizlariak: Gustavo Ortiz de Barron Plazaolako gerentea, Aitor Larraza Irurtzango alkatea eta Plazaolako Patzuergoaren presidentea eta Idoia Jusue Biltegiko langilea.
Moderatzailea: Mikel Goldazarena.
Euskaraz eta gaztelaniaz.
20:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 8

IRURTZUN Kalitatezko eta doako elikadura denontzat Gogorren eta Kontseilu Sozialistaren elkarretaratzea.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda: Atracciones Sanzen Tronko giroskopio.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Alde Zaharreko Euskal Festak: Aitortza makilaren ematea eta Espartzu taldearen kontzertua.
18:00etatik aurrera, gaztetxearen plazatxoan.

OLAZTI Puro Relajo taldearen kontzertua.
19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 9

IRURTZUN Mendi Jarduerak 2021. Cholutas film dokumentalaren emanaldia.
Sarrerak: 5 euro. Gaztelaniaz.
20:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.



ALTSASU Itsasartearen zabalenean 25 urte, 25 istorio Fernando García Arevaloren argazki erakusketa.
Maiatzaren 15era arte, astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan emanaldiaren aurretik eta igandetan 18:30etik 19:30era. lortia kultur guneko erakusketa gelan.

ASTELEHENA 10

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen parean.

ASTEARTEA 11

ALTSASU Eman Zesarri Zesarrena Joxe Iriarte Bikila idazlearen eta Alternatibako kidearen liburuaren aurkezpena.
19:00etan, Gure Etxean.

ASTEAZKENA 12

ALTSASU Osasun publikoaren defentsan elkarretaratzea.
11:00etan, osasun etxearen parean.

ALTSASU Zaporeak GK Eren hitzaldia Greziako Lesbosen egiten duten lanari buruz. Ongi etorri hamabostaldi solidarioaren barruan.
Sakanako Mankomunitateak, Sakana Harrera Haranak eta Tarima Beltzak antolatuta.
18:00etan, lortia kultur gunean.

UHARTE ARAKIL Ombuaren itzala film auzolan proiektuaren aurkezpena Patxi Bisquertekin.
19:00etan, udaletxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Otra ronda gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 7: 19:00
Igandea 9: 19:30

El olvido que seremos gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 12: 19:00



Bazkide Zozketa

1. SARIA
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

2. eta 3. SARIAK
LACTURALE: Esneki lotea
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazaren itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGA

Etxarri Aranatz, Enfermogurte dermionan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 fñora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Irurtzungo Pikuxar Elkartea taberna berrirako sukaldari bila: Interea baduzu bidali zure Cva pikutaberna@gmail.com helbidera. Astean 12 orduko lanaldia da, txandaka. Beharrezkoak dira jarrera proaktiboa eta lanean autonomia edukitzea, bestalde, euskara jakitea eta sukaldaritzan esperientzia izatea baloratuko dira.

LEHIAKETAK

UEMAK Iñaki Arregi ikerketa bekaren II.deialdia zabaldu du: Udalerri euskaldunen garapenarekin ez ezik, soziolinguistika edukiak zabaltzarekin eta udalerri euskaldunei buruzko ikerketarekin lotura estua izango du beka. Norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Laguntza jaso nahi duten egitasmoek, proposamenak eta lehen laginak aurkezteko epea maiatzaren 28an amaituko da. Epamahiak ekainaren 30ean jakinaraziko du 6.000 eurorekin saritutako bi ikerlanak zein

izango diren. Saridunek hamar hilabeteko epea izango dute laginak garatzeko eta ikerlanak aurkezteko. Amaitzean, gutxienez 75 eta gehienez 200 orrialde izan beharko dituzte saritutako lanek. Dokumentazioa UEMAREN Azpeitiko bulegoan (Enparantza nagusia, 11, 6. bulegoa. 20730 Azpeitia, Gipuzkoa), digitalki administrazioa@uema.eus helbidean. Informazio gehiago www.uema.eus webgunean.

XII. Gaztezero Bideo Lehiaketa martxan: www.gaztezero.eus helbidean sartu, formularioa bete, bideoa grabatu (ezinbestean Gaztezero papereko aldizkaria, aldizkari digitala edota gaztezero.eus webgunea azaldu behar dira) eta bidali web@gaztezero.eus helbidera maiatzaren 21a baino lehen. Irabazleek 1200 euroko saria jasoko dute! Informazio gehiago <https://www.gaztezero.eus/albisteak/hemen-daxii-gaztezero-bideo-lehiaketa/> estekan.

OHARRAK

Josefina Arregi Klinikatik eskaera: Eguneko Zentroan orotzipen tailer bat prestatzen ari dira, pertsona orainaldian orientatzeko xedearrekin. Tailerra egin ahal izateko klinikak garai bateko objektuak behar dituela jakinarazi du, esaterako: jostailuak, jolasak, landako edo etxeko tresnak,

apaingarrak, eta abar. "Etxean horrelako objekturen bat baduzu, helaraziezaguz Altsasuko gure zentrorra". Josefina Arregi Klinikak Lagunen Elkartea.

'Altsasu (Gau Hura)' dokumentala amaitzeko crowdfunding diru bilketa kanpaina: Amets Arzallus eta Marc Parramon dira dokumentalaren egileak, lau urte eman dituzte manifestazioak, epaiak, elkarrizketak eta protagonista batzuen bizipenak grabatzen. Orain postprodukzio fasean daude eta eskatzen duten dirua proiektua bukatzeko lanetara, eta istorio hau gure mugez haratago zabaltzera bideratuko da. Crowdfundingaren lotura <https://www.verkami.com/locale/es/projects/29811-altsasu-gau-hura>.

'Kubarako xiringak' kanpaina: Euskadi-Kuba Gobernuz Kanpoko Erakundeak kontu korronte bat zabaldu du diru ekarpenak jaso eta Kubara eramateko xiringak erosteko helburuarekin. Kubak, beraien txerto propioekin biztanleria osoa inmutatu nahi du aurren, baina, EEBK ezarritako blokeoak materiala erostea oztopatzen du. *Blokeoek hil egiten dute, zure elkartasunak Bizia ematen du.* Ekarpenean egiteko kontu korrontea: ES35 3035 0134 4313 4005 9271.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Aiora Sos Beregaña**, apirilaren 28an Uharte Arakilen
- **Luken Mozo Ikobalzeta**, apirilaren 30ean Unanun
- **Izei Ikobalzeta Arregi**, maiatzaren 3an Etxarri Aranatz

EZKONTZAK

- **Maria Lanz Azpilikueta eta Unai Bakaikoa Salceda**, maiatzaren 4an Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Maria Bego Zelaia Zufiaurre**, maiatzaren 7an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

DUELA 25 URTE...



Euskararen erabilera bultzatu nahian

Irurtzunen euskaldun ugari, baina euskara nekez entzuten zen kalean. Euskaldunak gazteak zirenez, Aizpeakoek bilerara deitu zieten, euskararen inguruan zeukaten jarrierari buruz hitz egiteko. Bilera hartatik jasotako ondorioekin, gazteen erabilera sustatzeko hainbat ekintzez osatutako egitaraua osatu zuen Aizpeak: Euskal Herriko beste herri batzuetako lekukotzak, *Goenkaleko* aktoreen mahai ingurua, mahai jolas txapelketak, Herri Urratserako autobusa, antzezlanak...

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75


iragarki@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak




EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 7




Larunbata, 8



Igandea, 9



Astelehena, 10



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€

prezio hauek BEZa bame dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



2020ko Sakanako Triatloi campuseko partaideak, bizikletaz abiatu baino lehen.

Udako eskaintza: errugbia, futbola, triatloia eta surfa

KIROLDEGIA Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak udarako eskaintzaren berri eman du: aurten errugbi, futbol eta triatloi campusak egongo dira, eta surf ikastaroa. Izena ematea zabalik dago

Kirol erredakzioa ALTSASU

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak udako kanpaina prest dauka. Hiru campus eskainiko dira: errugbia, futbola eta triatloia, eta horretaz gain surf ikastaroan izena emateko aukera egongo da. Eta triatloia-ri lotuta, uztaillaren 24an XVII. Sakanako Haur Triatloia jokatuko da Urdiainen. Udako ekimen hauek antolatuko Altsasuko, Uharteko Arakilgo eta Urdiaingo Udalen, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Errugbi Federazioaren laguntza izan du.

Pandemia dela eta, ikastaro guztietan uneoro agintariak zehaztutako neurriak beteko direla bermatu du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerriagoitiak. Aurreko udan bezala, kirolaren aldeko apustua egin du Mank-ek, kirol teknikariaren esanetan ikastaro eta campusek "harrera oso ona" izaten dutelako, eta ekimen hauek "Sakanako herri ezberdinetako jendea ezagutzea" ahalbidetzen dutelako.

Surf ikastaroa, Zarautzen

Ekainaren 19an eta 20an Zarautzen surf ikastaroan aritzeko aukera izango da. Norbera bere kabuz edo familian egiteko surf ikastaroa izanen da, hastapeneko ikastaroa. 18 urtetik gorakoek zuzenduta dago edo familiei. Azken kasu honetan familia bakoitza edo heldu bat bere haur edo nerabeen arduraduna izango da. Zarautzko Moor Surf Eskolak eskainiko du ikastaroa. Ordutegia ekainean bertan zehaztuko da, azken astean, itsas mareen arabera.

Prezioa 40 eurokoa da, ikastaroa eta bi egunetarako autobusa barne (Ziorditik abiatuta, herriz herri jasoko ditu partaide guztiak). Surfean aritzeko beharrezkoa den guztia prezioaren barne dago: irakasleak, taulak, neoprenoak, dutxak, aseguruak...

Futbol campusa, Dantzalekun

Sakanako futbol campusa Altsasuko Dantzalekun izanen da eta hasiera batean bi txanda anto-

latu dira. Uztaillaren 1ean, 2an, 5ean, 6an eta 7an lehena (2009, 2010 eta 2011 urteetan jaiotako neska mutilendako) eta uztaillaren 8an, 9an, 12an, 13an eta 14an bigarrena (2006, 2007 eta 2008 urteetan jaiotakoendako). Kirol Zerbitzutik adierazi dutenez, beharrezkoa balitz txanda gehiago antolatuko lituzkete. Ordutegia goizeko 10:00etatik 13:00etara izanen da, eta entrenatzaileak Maalen Beraza Etxarri eta Aitor Lara Zia izango dira.

Gutxienez 14 partaide eta gehienez 25 onartuko dira aste bakoitzean. Izena eman ahala tokiak betetzen joango dira –tokia gordetzeko ordainketa agiria aurkeztu beharko da Manomunitatean– eta beharrezkoa balitz,

IZENA EMATEA ZABALIK DAGO, ZEHAZTUTAKO TOKIAK AGORTU ARTE EDO HILABETE BUKAERA ARTE

itxaron zerrenda egingo litzateke. Nesken taldea ateratzen ez bada, elkarrekin aritzeko dira, baina bost leku ziurtatuta izanen dituzte. Futbol campusean teoria eta praktika uztartuko dira, kategoria bakoitzean dagozkion gaiak aztertuz. Inguruan ere irteerak egingo dira. Prezioa 35 eurokoa da.

Triatloi campusa, Altsasun

Futbolari triatloiak hartuko dio lekukoa. Uztaillaren 15ean hasi eta uztaillaren 28an despedituko da triatloi campusa, Altsasuko Zelandi kiroldegian. 8 urtetik 16 bitarteko neska-mutilek eman dezakete izena eta goizeko 10:00etatik 12:30era triatloiak batzen dituen hiru kirolak landuko dituzte: igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa edo korrika, teoria eta praktika uztartuz. Igeriketa Zelandi kiroldegian egingen dute, eta txirrindularitza eta atletismoa Altsasu eta Urdiain artean. Prezioa 40 eurokoa da eta gehienez 25 partaide onartuko dira.

Ildo honetan, ikastaroan izena ematen dutenek Mank-ek uztaillaren 24an Urdiaingo igerilekue-tan antolatuko duen Sakanako XVII. Haur Triatloian parte hartzeko aukera izango dute.

Errugbi campusa Uhartean

Mank-eko udako kirol eskaintza despeditzeko, uztaillaren 29an hasi eta abuztuaren 4an despedituko da Sakanako udako errugbi campusa, belar naturala duen Uharteko Arakilgo futbol zelaietan. 8 urtetik 16 urtera bitarteko neska-mutilek izango dute errugbian murgiltzeko aukera, eta goizeko 10:30etik 13:30era ariko dira. Metodologiaren aldetik, egokitutako errugbi zinta landuko da batez ere, eta errugbiari buruzko teoria eta praktika uztartuko dituzte. Prezioa: 35 euro.

Izena emateko epeak

Antolatutakoetan izena ematea Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan egin behar da (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.eus). Surf ikastarorako ekainaren 10erako eman behar da izena, eta futbol campuserako, triatloi campuserako eta errugbi campuserako maiatzaren 26rako edo zehaztu diren lekuak agortu arte. Ikastaroak euskaraz izango dira, eta norbaitek ez badu ulertzen, pertsona horri gaztelaniaz esango zaio.

1. MAILA AUTONOMIKOIA

13. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lagun Artea - Beti Casedano **Atzeratuta**

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Avance Ezkabarte **32**
8 Lagun Artea **10**

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:00 Erriberri - Lagun Artea (*San Miguel*)

Betiren kontrako lehia, atzeratuta

Lakuntza perimetralki itxita dagoenez, igandean Lagun Arteak eta Beti Casedanok jokatu beharreko partida atzeratzea erabaki zen. Igandean lakuntzarrek Erriberri jokatu dute.

ERREGIONALA GIZONAK

13. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Berriozar **3-2**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA

1 Gazte Berriak **27**
4 Altsasu **16**

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

12:00 Beti Kozkor - Altsasu (*Plazaola*)

Altsasu 4. postura igo da

Igandean Altsasuk Berriozar hartu zuen Dantzalekun. Berriozar aurreratu zen, Imanolen golari esker Altsasuk berdindu zuen, baina Berriozar bigarrenez aurreratu zen. Altsasuk partidari buelta ematea lortu zuen, Urkok eta Paulettek egindako golei esker. Igandean Altsasuk Beti Kozkor du zain Lekunberrin.

FUTBOLA Osasuna Fundazioaren udako campusak Sakanan

Osasuna Fundazioak 4 eta 16 urte bitarteko neska-mutilendako udako futbol campusak antolatu ditu, horietako 4 Sakanan. Etxarri Aranatzen ekainaren 28tik uztaillaren 2ra eskainiko da futbol campusa, Lakuntzan uztaillaren 5etik 9ra, Uharteko Arakilen uztaillaren 5etik 9ra eta Altsasun uztaillaren 9tik 23ra. Ordutegia berbera izango da: goizeko 8:45etik 14:00etara.

Izena ematea zabalik dago www.fundacionosasuna.com webgunean edo 948 293 040 telefonoan. Antolatzaileek leku kopurua mugatua dela adierazi dute, eta ikasleak izen emateen ordenaren arabera onartuko direla. Prezioa: 130 euro.



Euskal Selekzioko kideak, Mágina Skyracen. EUSKAL HERRIKO MENDI FEDERAZIOA

Katarainen eta Razkinen EHko selekzioa, Espainiako txapelketa

MENDI LASTERKETAK Jaenen jokaturako Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketan talde onena izan zen

Asteburuan Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketak jokatu ziren Mágina (Jaen) eta bertan parte hartu zuen Euskal Herriko Mendi Lasterkarien selekzioak, Beñat Katarain Razkin lakuntzarrak eta Amaia Razkin Medrano uharte arakildarra tartean.

Larunbatean La Magina Skyrace igoera bertikala jokatu zen, 2,9 kilometro eta 1.000 metroko desnibela zuen probak. Manuel Merillasek Espainiako Kilometro Bertikalen Txapelketa irabazi zuen (32:34). Euskal selekzioko Asier Larruzearen aurretik (33:09). Emakumezkoetan Virginia Perez izan zen txapelketa (41:15) eta Euskal selekzioko Andrea Garai hirugarren (42:17).

Igandean Magina Skyrace traila jokatu zen (28,5 km eta 2.300 metroko desnibel positiboa), Espainiako Txapelketa. Inoizko mailarik handiena izan zuen, munduko lasterketetan aritzen

diren zenbait korrikalari aritu baitziren. Gizonezkoetan, bezperan igoera bertikala irabazteko zetorren Manuel Merillasek lortu zuen garaipena (2:34:19), eta Euskal selekzioko Aritz Egea hirugarren sailkatu zen (2:36:33). Beñat Katarain 15. postuan sartu zen (2:47:48).

Emakumeen artean lehia ikusgarria izan zen, eta Euskal selekzioko Oihana Kortazar izan zen protagonista, Espainiako bere laugarren txapelketa eskuratu baitzuen (3:06:22), bere taldekide Maite Maioraren aurretik (3:06:30). Amaia Razkin Medrano 33. postuan sailkatu zen (3:39:30).

Taldeka, Euskal Selekzioak Espainiako bi txapelketak irabazi zituen, gizonezkoena, Egeak, Larruzeak, Lizeagak eta Katarainek lortutako puntuekin, eta emakumezkoena, Kortazarrek, Maiorak, Iturbek eta Garaik lortutakoari esker.

MENDIA Urbanen orientazio ikastaroa antolatu du Mank-ek

Sakanako Mankomunitateak antolatutako *Naturanitzean Gozaten* programak mendian ibiltzen ikasteko orientazio ikastaroa antolatu du maiatzaren 16an Urbanen. Partaideak Urbanen bidexketan barna ibiliko dira, mapa eta iparrratza erabiliz, eta bidean artzain iturri eta txabolak topatuko dituzte. Xedea orientazio tresna

horien erabilera ezagutzea da eta goiz polita pasatzea.

Maiatzaren 16an goizeko 09:00etan hasiko da ikastaroa, Urbanen informazio gunean. 6 orduko iraupena izango du, eta 11 kilometroko ibilbidea, 250 metroko desnibelega, erraza izango da. Ekimena mendian ibiltzeratik ohi-tuta dauden 12 urtetik gorakoek dago zuzendua. Izena ematea zabalik dago (948464866edo kirolak@sakana-mank.eus), maiatzaren 12ra arte. Prezioa: 20 euro (gazteak eta 3. adinekoak 15 euro).



June Kintana, martxoan Espainiako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa irabazi zuenean. ESPAINIAKO FEDERAZIOA

June Kintana, triste eta frustrazio handiarekin

DISKO JAURTIKETA Asteburuan Europako Jaurtiketen Kopa jokatu da Kroazian, eta bakaikuarrak ezingo du aritu COVID-19 gairitu eta gero, aurretiko PCRan oraindik positibo eman duelako. Joko Olinpikoen sailkapenari begira, kolpe latza izan da

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

Asteburuan 21. Europako Jaurtiketen Kopa jokatu da Spliten (Kroazia). Espainiako Atletismo selekzioak hautatutako atleten artean June Kintana Larraza disko jaurtitzalea zegoen, baina bakaikuarrak ez du Kroazian bidea hartu, txapelketa aurretik egindako derrigorrezko PCRan positibo eman baitzuen. Kintanak COVID-19 gaixotasuna gairitu zuen, duela hiru aste bukatu zuen konfinamendua, ongi dago eta ordutik normal aritu da lehiatzen eta entrenatzen, baina PCRan oraindik positibo ematen jarraitzen du.

"Ongi nago, bizitza normala egiten, entrenatzen... baina PCRan positibo ematen jarraitzen dut. Proba serologikoak egin ditut eta gaixotasunaren antigorputzak ditut, baina Europako Federaziotik diote soilik PCR negatiboek balio dutela, eta horregatik ezin naiz Europako Jaurtiketen Kopara joan" azaldu du, triste, June Kintanak.

Egun gogorak

Europako Jaurtiketen Kopan ezin aritu izana kolpe gogorra da Kintanarentako. "Sekulako kolpea izan da, aurten jokatu diren Joko Olinpikoetarako sailkatzeari begira Europako Kopan lortuko nituzkeen puntuak oso garrantzitsuak zirelako. Egun hauek gogorak izan dira; triste nago, frustrazio handiarekin. Azken finean normal entrenatzen ari naiz, baina ezin dut lehiatu. Baina pandemian gaude eta oraingoan niri tokatu zait" gaineratu du Bakaikuko atletak.

Maiatzaren 15eko Liga

Joko Olinpikoetan sailkatzea maldan gora jarri zaio Kintanari, baina ez du etsi. "Lehen zaila

"EUROPAKO KOPAN EZIN ARITU IZANA SEKULAKO KOLPEA DA; OSO TRISTE NAGO" JUNE KINTANA

zen klasifikatzea eta orain zailagoa. Aukera gutxi dauzkat, baina itxaropena ezin da galdu" azpimarratu nahi izan du.

Olinpiar Jokoetan aritzeko gutxieneko bat eskatzen dute, baina aukera eman dute aurten jokatu diren zenbait txapelketetan puntuak lortuz gero, Olinpiar Jokotarako klasifikatzea. Kintanak markagatik sailkatzea ezinezkoa ikusten du, gutxieneko 63,5 metro direlako, baina hainbat txapelketetan puntuatuz gero, rankingean postu polit bat lortzeko aukera ikusten zuen. Europako Kopan ezinezkoa izango da, baina ea maiatzaren 29an eta 30ean Polonian jokatu den Nazioarteko Europako Txapelketan posible den.

Hurrena: Espainiako Liga

Bitartean, bere ahalegin guztia hurrengo helburuan jarri du, maiatzaren 15ean jokatu diren Espainiako Ohorezko Mailako Atletismo Ligako bigarren jardunaldian.

"Zabaletak funtzionatzen badu, Daneli esker ere bada"

JOSE JAVIER ZABALETA ASPEKO PILOTARIA

PILOTA Elezcano eta Zabaleta dira Binakako finalerako faboritoak, baina Zabaletak ez dio etiketa horri kasurik egiten eta %100ean jokatzeko ez badute ez dutela irabaziko dio

Maidar Betelu Ganboa ETXARREN

Egun handia iritsi da. Txapelketa hasi eta lau hilabete luzeren ondoren, igandean jakingo da zein bikotek jantziko dituen 2021eko Binakako Txapelketako txapelak. Danel Elezcano eta Jose Javier Zabaleta batetik, eta Jon Ander Peña eta Jon Ander Albisu bestetik, Bilboko Miribilako Bizkaia pilotalekuan final handia espero da, tentsio handikoa.

Binakako Txapelketa luze honek erresistentzia saritzen du.

Binakakoa txapelketa gogorra da. Aste asko, partida asko, entrenamendu asko... batzuetan buruarendako gogorra izaten da. Ea finala ahalik eta hobekien prestatzen dugun.

Zer moduz zauden galdetzen dizugunean, alde fisikoaz gain, beti alde psikologikoa aipatzen duzu. Txapelketa honetan buruz ongi egon beharra dagoela nabarmen duzu beti. Uste baino garrantzi gehiago du alde psikologikoa.

Bai. Txapelketa luze batean beti izaten dira gogorrak diren aste batzuk, adibidez partidak galtzen dituzun aste horiek. Une horietan ez zaude horren motibatuta, entrenatzeko eta lan egiteko horren gogotsu, eta buruari gogor egin behar zaio.

Fisikoki ongi zaudela agerikoa da. Sekulako txapelketa egin duzue, lezioa bata bestearen atzetik. Oso perfektionista zara, beti diozu hau edo beste hobetu beharra duzula,

baina zuk ere aitortu beharra duzu oso ongi aritu zaretela, nahiz eta igandeko partida, Ezkurdiaren eta Tolosaren kontrakoa, galdu eta txapelketako zuen kaxkarrenetakoa izan.

Beno, txapelketa ona egin dugu, bai. Larunbateko partida ez zen gure onena izan, baina ezta horren txarra ere. Joseba aurkari handia da, pilotari handia, eta Tolosak oso ongi lagundu zion. Beraiek oso partida txukuna egin zuten eta gaitetik pasa zitzaizkigun. Guk ez genuen egun ona eta pixka bat sufritu genuen, baina fisikoki eta eskuetatik oso ongi nago. Finaleko astean sartu gara eta ongi sentitzen naiz, finalerako inolako kezurik ezta arazorik gabe, eta ahalik eta hobekien prestatu eta ea final hori topera jokatzeko dugun. Gure maila ematen badugu, aukerak izango ditugu; bestela ez.

Hasieratik txapelketa irabazteko faboritoak zineten. Horrek markatzen du?


Ez, nik gauza horiei ez diet kasurik egiten. Egia da txapelketan ongi ibili garela, baina oso zaila izaten da finalera iristea. Eta finala irabaztea are zailagoa.

"NIRE BINAKAKO IBILBIDEAN DANEL BETI IZAN DUT PAREAN. HOR IKUSTEN DA BERE MAILA"

Halako txapelketa batean nik ez dut faboritorik ikusten. Beste urte batzuetan ere ikusi izan dugu bikote batek txapelketa oso ona egitea, baina gero ez dela txapelduna izan. Faboritoaren kontu horri ez diogu kasurik egin behar; gu topera jokatzeko eta gure %100 ematen saiatu behar gara.

Binakako bi txapela dituzu, 2013an Juan Irujorekin lortutakoa eta 2018an Joseba Ezkurdiarekin irabazitakoa, hain zuzen ere Elezkanori eta Rezustari gailendu eta gero. 2019ko finala jokatu zenuen, Irribarria bikote zenuela, eta Elezkanoren eta Rezustaren kontra galdu zenuen. Beste hainbat txapelketetan finalerdietan erori zara, Jakarekin, Ezkurdiarekin eta Elezkanorekin bikotea osatuta. Palmaresa errepasatzean atentzioa ematen du zure Binakako ibilbide honetan Elezcano gertu izan duzula, beti parean.

Bai, beti parean. Hor ikusten da Elezkanoren maila. Elezcano beti hor ibili da, maila handiko pilotaria da eta aurrean berarekin aritzea tokatu zait berriz. 2017an elkarrekin aritu ginenean finalerdietako partidetan zorte txarra izan genuen; lesionatu egin zen, azkeneko partidetan ez genuen gurea eman eta ez ginen finalera iritsi. Aurrean bai, bikote on batekin jokatu behar dut igandeko finala eta, egia esan, oso pozik nago berarekin ariko naizelako. Zutaz gehiegi hitz egin denaren sentsazioa duzu? Egia da ikusgarri



Zabaletak 2018ko apirilaren 8an irabazi zuen Binakako bere bigarren txapela, Ezkurdiarekin. Bizkaia

zabiltzala, baina iruditzen zaizu Elezkanori buruz gehiago hitz egin beharko litzatekeela, meritu gehiagorako eman?

Hau Binakako Txapelketa da, eta Zabaletak funtzionatzen baldin badu Daneli esker ere bada, azkenean berak egiten duen lana nirea bezalakoa delako. Biak lan ona egiten ari gara, eta horregatik ateratzen ari dira gauzak. Binakako Txapelketa da, eta funtzionatzeko biok egin behar dugu ongi; bakarrak ez ditu partidak irabazten.

Zure unerik onenean zaudela aipatzen da. Zuk hala sentitzen duzu? Bueno, iaz ere Jakarekin txapelketa oso ona egin genuen; partida asko irabazi genituen eta bikote gisa ongi ibili ginen, baina pandemia iritsi zen eta ondoren ez genuen gurea eman, pena. Azkeneko urteetan batez ere ongi sentitzen ari naiz, asteburuko partidak astean barna ongi pres-

"TXAPA BOTA, AURRERA BEGIRATU ETA HARMAILAK HUTSIK IKUSTEAK SEKULAKO PENA EMATEN DIT"

tatzen saiatzen naiz. Nirea eman nahi dut, pilota bukatzen denean nire buruarekin gustura gelditzeko.

Bi Jon Ander dituzue aurkari finalerako, Peña II.a eta Albisu. Txapelketa oso ona egin dute. Zuen borroroak izan ziren hasierako ligaxkan, bi partidak irabazi zizkizueten, baina duela bi aste jokaturako finalerdietan makina zapaltzaile atera eta euren gaitetik pasa zineten, 8 tantotan utzi baitzenituzten. Txapelketa honetako sorpresetako bat izan dira. Nola ikusten dituzu? Ez dakit sorpresa izan diren. Hasieratik bikote handia zela bage nekien, eta bikote oso indartsua direla erakusten ari dira. Partida dominatzen hasten badira oso zaila izango dugu; biak asko ematen diote, jokoari abiadura asko jartzen diote eta biei konfiantzarekin daudela ikusten zaie. Peña oso ausart dabil aurrean, eta Albisu azkenaldian oso ongi dabil eta sekulako partidak egiten ari da. Beraz, final oso zaila dugu aurretik. Duela bi aste bezala jokatzeko saiatuko gara; gure maila ematen badugu aukerak izango ditugu, eta bestela, ez. Zein izango da finalerako zuen hasierako planteamendua?



frontoia beteta zegoen, sekulako giroarekin. Igandean bere hirugarren txapela jantzi nahi du, baina ez du zaleen babesa izango. ARTXIBOA, ASPE



Astearteko argazki sesioan, Elezkanok eta Zabaletak ikusmin handia piztu zuten. ASPE

Duela bi asteko partida bezalakoa: hasieratik topera hasi eta partida dominatzen saiatu. Horilortzen badugu aukerak izango ditugu. Badakigu hamarrekota partida bat jokatu beharko dugula, zazpiko edo zortziko partida jokatzeko badugu ez dugulako irabaziko. **Atzeko koadroetan zure eta Albi-suren arteko borroka gogorra espero da, eta aurreko koadroetan Peña eta Elezkanok erasokor aritza. Ikusmina handia da. Zure ustez finala xehetasunek erabakiko dute edo alde handiak izango dira?**

Igandean ikusiko da, ez dakigu. Partida guztiak desberdinak dira: ez dakizu nola hasiko den, duela bi asteko jokoak balioko ote dizun... momentuan ikusiko da hori. Guk gure %100 ematen saiatu beharra dugu; ez dakigu nondik aterako den partida, nola hasiko den, beraiek zer nolako eguna izango duten, duela bi astekoa baino hobea edo ez... Hortaz, guk gurea eman beharra dugu, eta horrela aukerak izango ditugu.

Publikorik gabe jokatzera ohitura zara?

Partida bakoitzean txapa botatzen dugunean eta harmailera begiratzen dugunean horrela ikus-

tea, hutsik, sekulako pena ematen dit. Pilotariok publikoak disfrutatzen duela ikustea asko eskertzen dugu. Hori nahi dugu, jendeak gurekin disfrutatzea. Eta alde horretatik zalerik ez egotea pena handia da. Ea behingoz datozen hilabeteetan hau pasatzen den, pilota zaleak frontoietan hasten diren eta guztiok pilotarekin gozatzen dugun.

Final aurreko astea nerbioei eusteko zaila izaten da. Zoramena izaten da finalistendako: komunikabideekin elkarrizketak egiteko eguna, osteguneko pilota aukeraketa, tartean entrenamenduak... Erlaxatzeko zer egiten duzu? Badaukazu ohitura bereziren bat?

Oraingoz aste hasieran gaude (elkarrizketa asteartean egin zen), nahiko lasai nago, entrenamenduak prestatzeko gogotsu, astean zehar ongi egoteko. Partida bezperan aitona-amonaren herrira joatea gustatzen zait,

"NIREA EMAN NAHI DUT, PILOTA BUKATZEN DENEAN NIRE BURUAREKIN GUSTURA GELDITZEKO"


eguna beraiekin pasatzera. Normalean partida aurretik hori egiten dut eta aste honetan ere berdin egingo dut. Egia esan, aste guztietan bezala, berdin berdin prestatuko dut igandeko finala.

Gauden egoeran ezinezkoak dira txapel batek dakartzen ospakizun festak egitea. Hirugarren txapela lortuz gero, etxekoekin ospatuko duzu?

Momentu honetan ezin da festarik ez ospakizunik egin. Ezkurdiarekin txapela irabazi nuenean orduan bezala ospatzea litzateke politena, kasu honetan Danelekin, familiarekin, lagunekin... baina ezin da, eta etxean beharko. Dena den, lehenengo txapela lortu behar da, eta gero ikusiko dugu. Hau guztia pasatzen denean ea zerbait ospatzerik dugun.

Danel eta zuk irabaziz gero, 2020ko txapeldun Ezkurdiarekin eta Martijarekin elkartu eta guztiak ospatzea ez legoke gaizki...

Idea ona izan daiteke! (kar, kar...). Ezkurdia eta Martija lagunak ditut, iaz sekulako txapelketa egin zuten, 2020ko txapeldun handiak izan ziren, baina ez zuten txapela ospatzeko aukerarik izan. Pentsatzekoa da...



Zabaletak dio hamarrekota partida egin beharko dutela, bestela ez dutela irabaziko.

BINAKAKO TXAPELKETAKO FINALA

zuzeneko jarraipena Guaixeren eskutik

www.guaixe.eus **guaixe**

Nahia Imaz Nazioen Kopan, selekzioarekin

TXIRRINDULARITZA Espainiako emakumezkoen junior mailako selekzioarekin lehiatuko da altsasuarra asteburu honetan, Nazioen Kopako Tour du Gèvaudan Occitanie lasterketan

Nahia Imaz Perez txirrindulari altsasuarrak (Nafarroa Ermitagaña) Frantziako bidea hartuko du gaur. Espainiako emakumezkoen junior mailako selekzio Gema Pascual hautatzaileak deituta, altsasuarrak Tour du Gèvaudan Occitanie lasterketan parte hartuko du, Nazioen Kopako proban. Berarekin batera Ainara Albert, Laia Puigdefabregas, Andrea Lopez, Jimena Roa eta Sandra Gutierrez txirrindulariek osatuko dute selekzioa.

Okzitania jokatu den Tourrak bi etapa izanen ditu. Larunbatean 70 kilometroko proba gorabeheratsua, 4 porturekin, eta igandean 65 kilometroko lasterketa, bi porturekin, lehen mailako Jalabert portua tartean.

Balmasedan txukun

Aurreko larunbatean Nahia Imaz Perezek Balmasedako Emakumeen Sarian parte hartu zuen. Juniorrek 66 kilometro osatu zituzten, eta seikote bat iritsi zen elkarrekin helmugara. Rio Miera-Cantabria taldeko Laura Ruiz gailendu zen guztien artean. Nahia Imaz 13. postuan sartu zen, 1:19ra.

Unzillaren bi laugarren postu

Larunbatean Nafarroako Junior Mailako Txirrindularitza selek-



Nahia Imaz, joan den urtean kadete mailako Nafarroako Erlojupekoa irabazi zuenean.

zioarekin Oloten (Girona) aritu ziren Quesos Albeniz-Burunda eta Sakana Group-Aralar taldeetako bina txirrindulari, Mikel Unzilla eta Hugo Aznar eta Unai Garro eta Jon Erdozia. 41. Trofeo Primavera aritu ziren, bikain. Mikel Unzilla 4. sailkatu zen, Hugo Aznar 6., Unai Garro 13., eta Jon Erdozia 17. .

Handik bueltan, igandean juniorren 34. Elkartu Nahi Saria jokatu zen Zegaman, 75 kilometroko lasterketa gorabeheratsua. Hirukote baten arteko esprintean Nicolas Alustiza (1:56:12) gailen-

du zen. Quesos Albenizko Mikel Uncilla sartu zen, 4. postuan, 20 segundora. Bere taldekide Hugo Aznar 8. izan zen, eta Sakana Group taldeko Aimar Tadeo 10., lesionatu eta gero errepidera bere buelta izan zen lasterketan.

Gainontzekoei dagokienez, Jon Erdozia (Sakana Group) 16. izan zen, Unai Garro (Sakana Group) 38., Sergio Lopez (Quesos Albeniz) 43. eta Ander Villalobos (Quesos Albeniz) 44. Taldekako sailkapenean Quesos Albeniz bigarrena izan zen, Ampo-Ikolan Sports taldearen atzetik.



ASTANA

Izagirre Giroan hasteko prest

TXIRRINDULARITZA Larunbatean hasiko da Italiako Giroa, Torinon, eta 3.479,9 km osatu eta gero, maiatzaren 30ean despidituko da, Milanen. Ordezkar sakandar bakarra dugu, Gorka Izagirre (Astana), eta Aleksandr Vlasov liderra laguntzea izango da bere lana. Vlasovekin batera Mikel Landa, Yates, Bernal, Martin, Nibali, Evenepoel eta Soler dira favoritoak.



LIZARTE

Arrietaren Santikutzeko podiuma

TXIRRINDULARITZA Igor Arrieta Lizarraga (Lizarte) afizionatuen mailako Espainiako Kopan 4. postura igo da, larunbateko Santikutz Klasikoan ihesaldian sartu eta helmugan 3. sailkatu eta gero, Unai Iribarren (Laboral Kutxa) eta bere taldekide Pau Miquelen atzetik. Igandean, Urrakiko Igoeran, Arrieta 6. sailkatu zen eta Abiatzen Torneoan 10. postuan dago.

Mikel Regil bigarren

TXIRRINDULARITZA Arronitzan jokatuak kadeteen 24. Borja Osés Memorial oso proba lehiatua izan zen, esprintean erabaki zena. Limousin taldeko Urko Vidal gailendu zitzaion Quesos Albenizko Mikel Regil altsasuarrari. Aritz Oiarbide (Sakana Group) 7. iritsi zen, 3 segundora, Top-Tenean. Gainontzeko sakandarrek ere lan oso txukuna egin zuten.



MARTIN EARLY

KIROLDEGIA Daniel Echávarri, kirol orientatzaile berria

Mank-eko Sakana Eskualde Aktiboa zerbitzuak jarduera fisikorako orientatzaile berria du, Daniel Echávarri Manjón. Beraz, astelehenerik aurrera berriz martxan dago Sakanako biztanleria gero eta aktibo eta osasuntsuago izatea helburu duen zerbitzua.

Ariketa fisikoa egin nahi duten eta honen inguruan informazioa nahi duten sakandarrak lasai

asko hots egin dezakete zerbitzura (608 697 550), eta Echávarri norberaren ezaugarri eta beharrei egokitutako jarduera fisikoa aukeratzen lagunduko die. Herriar guztiendako zerbitzua da, dohainik.

Honekin batera, bueltan dira Ttipi-Ttapa paseo osasuntsuak Urdiainen (astelehenero 11:00etan), Bakaikun (asteartero 11:00etan), Iturmendin (asteartero 12:00etan), Lakuntzan (ostegunero 11:00etan) eta Etxarrin (ostegunero 16:00etan).

Sakanako musikarien bide naturala

Haize Berriak Sakanako musika bandaren zilarrezko urteurrena izanen da. Dagoeneko ospakizun emanaldiekin hasi dira, programazio ofiziala aurkeztu ez badute ere, eta bihar 'Piazzolaren tangoa' kontzertua eskainiko dute

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Javier Unamuno Asarta Haize Berriak bandako musikari beterranoetako bat da. 25 urte daromatza bertan, Sakanako musika bandak bezainbeste. Sortzailetako bat izan zen. "Banda sortu aurretik fanfarrean eta txarangan eta abar geundenok ideia bage-neukan". Banda bat sortzea "normalena" zela ikusten zuten, horretarako talentua baitzegoen. Lehenengo zuzendaria Mario Fernandino saxofoi jolea izan zen. Gutxi irauin zuen, zuzendaritza ez zitzaizolako "batere" gusatzen. Orduan, Juan Jose Torres tuba jole valentziarra sartu zen.

"Banda Sakanan mailan sortzea ikusten genuen". Izan ere, askotan bandatik aipatu duten beza-

la, Haize Berriak Sakanako musika banda da. "Batzuk horrela ikusten dugu, beste batzuk Altsasukoa dela pentsatzen dute". Baina bandan Sakanan guztiko musikariak daude, eta herriekin harremanak "estutu" nahi dituzte. "Herrietan jotzeko desiratzen gaude". Aurretik Etxarri Aranzatzen, Altsasun eta Olaztin, gogoraten duenez, musika bandak zeuden, baina udalek laguntza kendu zizkieten, desagertu ziren. Desagarpeneren lekuko izan zen Unamuno ere: "Azkenean, udalen laguntza ezinbestekoa da banda baterako. Laguntzarik gabe, bandak ez du funtzionatzen".

Haize Berriak banda 25 kiderekin sortu zen, gutxi gorabehera. Gaur egun 35 bat dira, egoeraren

arabera. Musika eskolen garrantzia aipatu du Unamunok: "Askotan aipatu dugu musika eskolek ez dute helburu zehatzik herriko musika taldeetara bideratzeko". Hasierako banda horretatik eta sorrerako lehenengo urteko bandatik "zortziedohamar" kidek jarraitzen dute.

Bandan hezi

Miren Aldasoro Lezeak bandaren adina du, gutxi gorabehera. Bandaren festetako emanaldiak "betidanik" ezagutu ditu. Duela hamaika urte sartu zen. "Sei edo zazpi urtetatik egon naiz txirula jotzen eta bilakaera natural bat bezala izan da. Adin batera iristen zarenean, eskola uzten baduzu, gerta daitekeen gauza bat da



Goian Miren Aldasoro eta Javier Unamuno eta behean Maialen Oiarbide eta Asier Valdevieso.

instrumentua ohe azpian utzi eta gehiago ez erabiltzea". Irteera posible bat bandan sartzea da. Mirenek zeharkako txirula aukeratu zuen "familiar ere jotzen" zutelako, eta nahiko argi izan zuen hasieratik.

Hamabost urterekin Maialen Oiarbide Unamunok oso argi du musikaren munduan jarraitu nahi duela. Dagoeneko kontserbatorioan ikasten ari da, eta Haize Berriak bandan duela hiru urte hasi zen. "Txikitatik musika asko gustatu zait, gainera ahizpek ere bandan jotzen zuten eta bandan sartu nintzen". Familiak konbentzitu ninduen". Hasiera batean kostatu zitzaizola aitortu du "oso lotsatia nintzen eta ez nintzen ausartzen". Baina kontzertuak entzun ondoren eta jendea ezagutzen hasi zenean, sartzeko urratsa eman zuen. Musika eskolan zegoela instrumentua aukeratzeko garaia heldu zitzaionean tuba aukeratu zuen, baina tuba ikasteko aurretik bonbardinoak ikasi behar da, eta horretan ari da.

Haize Berriak bandak musika eskolarekin hainbat kontzertu eskaintzen ditu. Musika ikasleek bandaren egitekoa eta banda irteera bat dela ikus dezaten aukera bat da. Asier Valdevieso Ruizen kasua izan da. Hamahiru urte ditu eta bi eta erdi inguru daromatza bandan. "Musika eskolarekin kontzertu bat eskaini

zuten eta ordutik helburu bezala bandan sartzea jarri nion nire buruari". Helikioa jo nahi izan du betidanik, "tuba bat bezalako, baina barruan sartzen zara". Musika eskolan ideia horrekin hasi zen ere, baina aurretik bonbardinoak ikasi behar du.

Musika zaletasuna

"Musika talde hain zabal batean aukera ematen digu musikari guztioi beste instrumentuetan interesa izateko". Bandan jotzean "beste instrumentuak" jotzera animatzen dituztela esan du Unamunok, "tentatzen zara eta instrumentu gehiago probatu nahi dituzu". Unamunok klarineta jotzen du, "gustatzen zaiolako", baina perkusioa ere jotzen du eta orain tuba ikasten ari da. "Denak gustatzen zaizkit, abesten dut ere...". Aldasoro eta Oiarbide abeslari onak direla azaldu du ere.

Esan bezala, instrumentu gehiago jo nahi izate hori orokortua da. "Behin musikaren munduan sartzen zarela grin hori sartzen zaizu". Aldasorok "profesionalki ez bada ere" tin whistle txirula irlandarra eta ukelelea jotzen ditu, "baina etxean, denbora pasa bezala". Oiarbideren kasuan kontserbatorioan pianoa jotzen dute eta hurrengo urtean, batxilergoan, gitarra eta ukelelea jotzen ikasiko dutela esan du.

Urteurrenaren hasiera

Haize Berriak erronka banda bat da. Musika aldetik urrats bat gehiago ematea gustatu izan zaio beti. Oraingoan tangoarekin ausartuko dira, *Piazzolaren tangoa* kontzertuan. Bihar, larunbata, 19:30ean, izanen da, eta sarrerak agortuta daude.



BAZTERRETIK
IRATI PELLEJERO
MARIN

Udaberria

Udaberria iritsi da, udaberri arraroa, hotza, euritsua... eta etxean edo herrian egotekoa. Hori probestuz armairu aldaketa egin dezakegu. Gehienak gogotsu gaude egoera honi aldaketa bat egiteko, eta zenbait ideia proposatuko dizkizuet.

Gure eguneroko looka errezeta bat dela pentsatu behar dugu; beti osagai berdinak erabiltzen baditugu, azkenean janari hori gorrotatzen hasiko gara. Nahikoa da elementu batzuk aldatzea sentsazio desberdinak lortzeko.

• **Jantzi bati soiltasuna kentzea:** makillaje koloreko body bat gehitu eta, bide batez, larruzko poltsa bat tonalitate berean. Orokorrean diskretua izaten jarraitzen duen arren, ausardia eta originaltasun ukitua gehitzen ditu.

• **Ohiko konjuntio bat ezohiko bihurtu:** aspertuta jertse eta Converse zapatilekin joateaz? Lookarekin ez doan zerbait gehitu, hala nola, cowboy txaketa bat.

• **Look berezia lortu osagarri diskretu batekin:** osagarri bitxiez baliatzea ez da behar denboraldiko look bat atera ahal izateko. Bixera edo txano bat gehitzearekin nahikoa izango litzateke (denboraldiko osagarriak bilatuenetako bat).

• **Berritu gogokoan duzun puntuzko konjuntioa:** gaur egun edozerekin jartzen ditugu zapatilak, baina zer iruditzen zaizue takoi baxu batzuegatik aldatzen baditugu? Eta tendentzia berri honi urrezko bitxiak gehituz gero, arrakasta zurea izanen da.

• **Elegante jantzeko ez da beharrezkoa blusa zuria jantzea;** kamiseta bati txaleko bat gehituz antzeko zerbait lortuko genuke, eta jakinen duzuen bezala txalekoak 2021ean oso indartsu sartu dira.

• **"Gaueko" arropa egunez jantzi:** gaur egungo egoera dela

eta aukera gutxi dugu gaueko arropa jantzeko, baina zergatik ez ditugu egunez jantziko? Konbinatu ezazu txaketa handi batekin eta bota batzuekin.

• **Gabardina:** honek ez digu huts egingo, baina aspertuta egonez gero, gehitu diadema bat edo alkandora bat, lepoa agerian utziz.

• **Konfinamenduak eta bertan egiten genituen bideo deiak ideia bat eman digute;** **goitik dotore joan gaitezke** eta azpian praka eroso batzuekin konbinatuz.

• **Arropa elegantea birziklatu:** denok dugu armairuan soineko edo arropa bat, ezkontza edo ekitaldi berezi baterako erositakoa. Honi orain eguneroko erabilpen bat eman diezaiogeko. Hala nola, zapatila edo bota handi batzuekin konbinatuz.

• **"Total black" looka arrakastatsua egin:** beltza ez da neguko kolore bat bakarrik, udan ere jantzi dezakegu, pastel koloreko poltsa batekin konbinatuz.

Atzera begiratu aurrera egiteko


Joxe Iriarte 'Bikila'-k 'Eman Zesarri Zesarrena' liburua argitaratu du, eta asteartean, maiatzaren 11n, Altsasuko Gure Etxean aurkeztuko du. Euskal Herriko gertuko historiaren erradiografia egin du hark idatzitako artikuluen bidez

Eneida C. M. eta Erkuden R. B. ALTSASU Euskal Herrian hamarkadetan bizi izan den indarkeriaren gaineko errelatoari ekarpena egin nahian Joxe Iriarte 'Bikila'-k *Eman Zesarri Zesarrena* liburua argitaratu du Intxorta 1937 kultur elkartearen eskutik. Hedoi Etxartek egin du hitzaurrea, eta Euskal Herriko liburuen aurkezpenak egiten ari da: maiatzaren 11n, asteartean, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxean hitzaldia eskainiko du eta hurrengo egunean, asteazkenean, 18:30ean, Iruñeko Katakraken izanen da.

"Historia luzea da". Baita Bikilaren istorioa ere. 1964. urtean militantzia politikoan hasi zen ETaren eskutik. "ETA bakarra zen". Urte luze horietan ETaren inguruan "pila bat" idatzi du Bikilak bai alderdien aldizkarietan, prentsa "librean" komertzialean eta abar. "Hau izan da guretzako gai onahiko bat. Horietatik laburpen bat egin dut liburu bezala aurkezteko". Liburuaren atal gehienak, beraz, "iraganean" idatzita daude: "Horrek dauka alde txar bat gaurtik ikusita, baina alde ona ere badu: une hartan gauza beroena zegoen momentu hartan idatzitakoak dira". Zentzuz eta bihotzez, idazlearen hitzetan.

Eztabaida

Atzetik aurretiko bidaia egin du Bikilak *Eman Zesarri Zesarrena* liburuan eta hainbat gai jorratzen ditu. "EAJk hasi du historiaren errebisio bat esaten ETA jaio izana zoritxar bat izan zela, ez dauka zentzurik eta horrekin historiari iruzur egiten dio". Azaldu duenez, erakundeak aldatzen joaten dira, eta ETArekin gauza bera gertatu da: "Aldatzen joan zen, estrategia aldatzen joan zen". Jaio zen momentuaren testuinguru kontuan hartu behar da: "Momentu horretan diktadura batean bizi ginen. Diktadura batean armak hartzea niretzako guztiz zilegizkoa eta, garai hartan, beharrezkoa zen".



Joxe Iriarte 'Bikila' idazlea. ALTERNATIBA

'EMAN ZESARRI ZESARRENA' 'BIKILA'-REN LIBURUA AURKEZTUKO DUTE ALTSASUN

Beste atal batean gaur egun ETaren eta Euskal Herriaren inguruan egiten den errelatoen inguruan hausnartu du Bikilak ere. "Esaterako, *Patria* liburuarekin eta seriearekin gertatzen dena. Aranburu jaunak kristonak bota ditu idazle euskaldunon kontra. ETaren inguruan ez genuela ezer idatzi, eta hori gezurra da dagoen bibliografia kontuan hartuta". Aberria izena jartzea ere "iruzurra" dela dio: "Zein aberriz ari da? Euskal Herriaren terrorista gaizkile batzuk bultzatu nahi duten aberri bat, toxikoa dena". Ez du aipatzen, aldiz, Espainiako aberria nola eraiki zen: "Hainbeste urtetan kanpoan eta barruan egindako biolentziaren bitartez".

Hausnarketa

Estatuaren eta borroka armatuaren azterketa egiten du Bikilak

liburuan. "Juzgatzen ditut". Beste eztabaida bat sortzen da: "Zer pentsatzen dugu biolentziaren? Biolentzia noiz da aldatzeko bide nagusia eta noiz ez?". Horren inguruan ere hitz egiten du. Izan ere, aipatu duenez, pentsalari eta filosofo handi gehienak biolentziarekiko ikuspuntua dute oinarrian. "Nik ikusten dut dena ez dela beltza edo txuria. Batzuetan biolentzia izan daiteke eta beste batzuetan ez".

Indarkeria orokorra, zehatza eta mundu mailakoa goraka doa. "Biolentzia mundu mailako oso zabaldua dago. ETaren egin du, armak zapuztu dituzte, baina armagintza gero eta gehiago dago. Zenbat diru gastatzen den eta hortik zenbat bakezale omen direnak etekinak ateratzen dituzten". Horretan ere Estatuari buruz egin duen azterketa ezinbestekoa da: "Zenbat pertsona hil ditu Estatuak eta zenbat ETak? Hori kontuan izan behar da". "Hemen esate baterako askok diote gatazka horretan demokraziak irabazi zuela. Ni ez nago ados ideia honekin. Espainiako demokrazia benetako demokrazia dela esatea gehiegi delako".



Altsasu BHIko ikasleak eta Dantzaz taldeko dantzariak 'Basoak' emanaldiaren ondoren.

Mugitzeko garaia heldu da

Dantzabideak erresidentzia eta emanaldia egin dute Dantzaz taldeak eta Altsasu BHIko eta Andra Mari ikastolako ikasleek

ALTSASU

Basoak Dantzaz taldearen ikuskizun bat da. Gurs kontzentrazio esparruan gertatutako istorioa batean oinarritu dira lana sortzeko, eta ongi etorri, konfinamendu eta lokatza izeneko atalez osatuta dago. Aurreko ostiralean, Dantzaren nazioarteko egunaren hurrengo egunean, Altsasu BHIko bigarren mailako lau ikasle taldek *Basoak* ikuskizuna egin zuten, astean zehar sortutako koreografiekin. *Oholtzara salto!* Programaren Dantzabideak jardueraren barruan egindako erresidentziaren amaiera izan zen, eta kasu honetan Dantzaz hasierako taldea izan zen, protagonistak ikasleak zirelako. Andra Mari ikastolako hirugarren mailako ikasleek ere parte hartu zuten erresidentzian, baina Etxarriko perimetro itxieragatik ezin izan zuten emanaldian egon. Aurreago, herrian bertan *Basoak* ikuskizuna eginen dutela aurreratu zuten.

Dantzaz elkartearen helburua dantza sustatzea da. "Horregatik saiatzen gara beti horrelako egitasmoak egiten", azaldu du Fernando Saenz de Ugarte taldeko zuzendariak. Hirugarren ikasturtez etorri dira Sakanara: "Oso lan polita egiten dute, alde batetik, talde lana irudikatzen dutela: hiru herri elkarlanean aritzen dira. Bestetik, gure lanaren baitan ere elkarlana dago". *Oholtzara salto* eta *Dantzabideak* programa Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olaztiko Udalek antolatzen dute, eta arte eszenikoak

gazteei gerturatzea eta herrietan sustatzea du helburu.

Mugimendua

Dantza erresidentziaren oinarria ikasleen sorkuntza eta mugimendua sustatzea da. Talde lanaren bidez eta Dantzaz taldeko dantzari profesionalen laguntzarekin koreografia bat sortu behar dute gazteek. "Dantzan aritzea guztientzako zerbait hurbila da, baina oso gutxitan praktikatzen da. Baina egiterakoan, oso gertuko da". Gainera, programa honen bidez gazteek dantzariak ezagutzen dituzte eta haiekin harremanetan egoten dira, "ikusten dute ez direla pertsona arraroak". Erresidentziaren azken egunean sortutako koreografiak familiaren eta "komunitatearen" aurrea egin behar dituzte. "Publikoa ikasleek ikustera etorri da".

"Guztiok ez daukagu oso landuta gorpuztutako harremana. Egiten dugun kirolaren arabera arau oso zehaztuta ditugu, baina ez dugu gorputz osoko lanketa bat egiten, integrala". Ikasleen dantzarako ahalmenaz hitz egiten, Saenz de Ugarte dio "denetarik dagoela", eta ez dela bakarrik mugimendua kontuan hartu behar; beste faktore bat sartzen da jokoan: sorkuntza. "Izan daiteke mugimendurako dohain handiak ez izatea, baina sormenak izugarria izatea". Mugimendua ikasleek sortutako dira, kasu batzuetan Dantzaz taldeak egiten duen mugimenduaren antzekoa izan daiteke, baina bestela "haiek proposatutakoak" dira.



Aixita bertso saioaren antolatzaileak. UTZITAKOIA

"Aixita mimo handiz antolatutako bertso saioa da"

JOANA ZIGANDA BERTSOLARIA

Irurtzugo I. Aixita bertso sariketa antolatu du Pikuxar euskal txokoak. Maiatzaren 15ean, 17:30etik aurrera, jokatu da eta Euskal Herriko bertsolari gazteek parte hartuko dute

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN 2020. urtean jokatzekoa zen Irurtzugo I. Aixita bertso sariketa. Dena prest zuten, baina pandemiagatik bertan behera utzi behar izan zuten. Bertan behera utzi baino, egitasmoa atzeratu zuten

"IRUDITU ZITZAIGUN JENDEAK GAZTELU HORREKIKO HURBILTASUNA BADUELA"

eta aurten I. Aixita bertso sariketa jokatzeko unea iritsi da. Maiatzaren 15ean, larunbata, 17:30ean, izanen da, Irurtzugo kultur etxean.

Zergatik deitu diozue Aixita?

Antolaketa lanetan hasi ginenean, izen berezi baten bila ari ginen. Nahi genuen irurtzundarrentzako, arakildarrentzako eta inguruko jendearentzako erreferentziak zerbait izatea, eta pentsatu genuen Aixita polita izan zitekeela. Aixita Bi Aizpetan kokatuta dagoen gaztelu bat da.

Orain hondarrak daude, eta ilusio handiz ari dira berreskurapen lanetan. Dagoeneko zerbait ikusten da. Iruditu zitzaigun gaztelu horrek baduela bere garrantzia eta jendeak baduela bararekin

"AZKEN URTEETAN IRURTZUNEN BERTSOLARITZAREN INGURUAN MUGIMENDUA DAGO"

hurbiltasuna. Ideia ona izan zitekeela iruditu zitzaigun.

Irurtzunen bertso zaletasuna badago?

Nik uste dut baietz. Ez da zerbait herri guztiak duena, baina nik uste badagoela bertso zaletasuna. Iratxon bertso afaria egin da urte luzez, Pikuxarren azken urteetan hainbat gauza egin dira, bertso desafioak esaterako, eta Nafarroako Izeta bertso sariketaren saio bat bertan egin zen urte batean. Duela bi urte bertso tailer batekin hasi ginen eta horretan jarraitzen dugu. Azken urteetan ere gaztetxoek bertso eskola atera da. Mugimendua badago. Inguruan ere zerbait egiten denean jendea joaten da.

Nortzuk zabilzate antolatze lanetan?

Berez antolatzailea Pikuxar euskal txokoa da. Irurtzugo eta Arakilgo udalen babes jaso du, eta Laboral Kutxaren laguntza ere badu eta MECNaren barruan dago. Baina talde antolatzailean Pikuxarreko kideak eta bertsolariaren munduko bertsolariak gaude, eta gai jartzaile bat ere bada. Horiek, gutxi gorabehera.

Zergatik bertso sariketa bat antolatu?

Gazteendako sariketak badaude, baina Nafarroan Nafarroa mailakoak dira. Bertsolari nafarrek. Hau prestatzen 2020an hasi ginen, berez 2020an egin behar zen, eta momentu horretan ez zegoen Euskal Herri mailako bertso sariketarik. Iruditu zitzaigun halakoak sustatzea ongi dagoela, eta Irurtzun kokaleku ona izan zitekeela. Horregatik antolatu zen bertan. Dena den, aurten Euskal Herri mailan beste sariketa bat egon da, Señora sariketa, Lesakan izango da finala. Baina hori ere berria da.

30 urtez azpiko bertsolariak parte hartuko dute, ezta?

Askotan sariketa hauetan adin muga beheraxeago egoten da, baina iruditu zitzaigun erreferentzia bat jartzeagatik 30 urte izan zitekeela pixka bat luzatzeko eta zabaltzeko adin eremu hori. Batzuk muga horretan daude, baina egia da aurreko urtean egin genuen gonbidapena mantendu dugula.

Zer moduz doaz prestaketak?

Gehiena edo garrantzitsuena antolatuta dago, eta prest dugu. Txapela dagoeneko prest daukagu eta gutxi gorabehera dena antolatuta dago. Egunari begira azken lanak ixten joan beharko gara.

Zer bertsolariak parte hartuko dute?

Eli Pagola, Imanol Uribe, Iker Gorosterrazu, Maddi Ane Txoperena, Saioa Alkaiza eta Xabi Igoa egongo dira. Baietz esan ziguten segituan, eta gu oso pozik. Nik uste dut horrelako sariketak politikak direla beti, eta egia da aurten izan dugun egoeratik beste plaza bat dela. Pentsatu nahi dut horrek lagundu duela. Baina bertsolarien borondatea oso ona izan da.

Oreka geografikoa kontuan izan duzue.

Saioa eta Iker nafarrak dira, Eli gipuzkoarra, Maddi lapurtarra, Imanol bizkaitarra eta Xabi arabarra. Ideia da herri desberdinetako bertsolariak izatea. Bi nafar jarri ditugu eta horrela izatea nahiko genuke aurrerantzean ere, baina bestela toki desberdinetatik etortzea nahi dugu.

Nolako sariketa izango da?

Sariketa antolatzen hasi ginenean elkarte giroko sariketa izatea nahi genuen: afari baten inguruan, beste giro batean. Orduan, egungo egoerara egokitu behar izan dugu. Arratsaldeko plana izango da, 17:30ean hasiko da, eta bi fase izango ditu. Lehendabizikoa kanporaketa saioa deitu dioguna, eta hor sei bertsolariak parte hartuko dute. Ofiziokoa zortziko handian, zortziko txikia, kartzela eta gai bati bi bertso egin beharko dituzte. Hortik bi bertsolari buruz burukora pasako dira. Gutxi gorabehera 19:45ean jarri dugu. Bertan beste ariketa batzuk egin beharko dituzte: agurra, ofizioa hamarrekotxikian, seiko motza, gai baten inguruko bi bertso eta abar.

Sarrerak erosi behar dira?

Sarrera doakoa izango da, baina email batera idatzi behar da gonbidapena izateko: aixitabertsosariketa@gmail.com. Edukiera mugatua izango da, eta gonbidapena hartuz gero azken orduan joanez inoak aurretik abisatzea eskatzen dugu. Pikuxar euskal txoko berrian izatea nahi genuen, eta agian azken momentuan bukatzen dituzte obrak. Baina momentuz kultur etxean izango da, neurri guztiei erantzunez. Oso bertsolari onak dira eta mimo handiz antolatutako saioa da.

"EUSKAL HERRI MAILAKO SARIKETA DA, HERRI DESBERDINETAKO BERTSOLARIEKIN"

"Itoiz sekulako musika banda zen, aitzindaria"

'Itoiz. Udako Sesioak' ikus-entzunezkoa prestatzen ari da Doxa Producciones ekoiztetxea. Itoizen garaiko argazkiak, bideoak, audioak, artikulua... jaso nahi dituzte. Ricardo Areta Urrestaratu musikaria Itoizek Ilargi diskotekan eskainitako kontzertu batean izan zen

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 La Banda del Jefe Biguneko bateria jolea zara, musika estudioa duzu, musikazale hutsa zara eta, tartean, Itoizen zale amorruta.

Itoiz Lakuntzako eskolan entzun nuen lehen aldiz, Iñaki Handia eta Iñaki Txikia irakasleekin. Gogoan dut *Alkolea* zinta ekarri zutenekoa; azalak berak atenzioa deitu zidan, eta musikak zer esanik ez. Orduetik zalea naiz.

2 Itoizek bi etapa izan zituen: 1978-1983 artean rock progresiboa eta musika esperimental landu zuten eta 1983-1988 bitartean pop-rocka.

Aldaketaren inflexioa puntua 1983an gertatu zen, Jean-Marie Ecay gitarra jolea taldean hasi zenean, *Musikaz Blai* diskoa egin zutenean. Lehendabiziko etapa horretan Itoizek ere folka lantzen zuen, orduko kantautoreek bezala. Baina Trantsizioaren ondo-



Ricardo Areta, Ambulancek Phocasekin grabatutako diskoaren kartelarekin. UTZITAKOIA

ren kantautoreen beherakada etorri zen, eta pop-rock doinuak hasi ziren, *Movida Madrileña* delakoarekin batera. Orduan, Ingalaterrako musika eraginak hona iristerako hiruzpalau urte pasatzen ziren, baina Itoiz, ez dakit taldeko Iparraldeko bi musikarien eraginez edo, Ingalaterran eta Europan egiten zenarekin garaikidea zen, aitzindaria. Hemengo garaiei aurreratua.

3 Ilargi diskotekan hirutan jo omen zuen Itoizek.

Lehendabiziko biak Ilargiko lehen nagusiekin, Ines Betelu eta familiarekin, eta hirugarrena bigarren nagusiekin. 80ko hasieran izan zen lehena, taldea famatu egiten hasi zenean. 1983. urtean Lakuntzako kintoek, 1963koek, festetako azken egunerako Itoiz kontratatu zuten, baina 83ko abuztuaren 26ko Billboko uholdeengatik kontzertua bertan behera geratu behar izan zen, zenbait taldekide bizkaitarrak izaki. Handik gutxira Ilargira etorri ziren berriz.

4 Ilargiko bigarren kontzertu horrek polemika ere izan zuen, bonba mehatxua egon baitzen.

Inesen alaba Gorettik kontaktuta, diskoteka toperaino zegoen, eta Itoiz oholtzara atera eta lehendabiziko kantuan Guardia Zibila etorri zitzaion, bonba mehatxua egon zela eta diskoteka hustu behar zela esanez. Orduan ohikoa zen Guardia Zibila bonba mehatxuak zeudela esanez agertzea. Jende guztia kanpora atera behar izan zuten -kontuan izan orduko egoera politikoa puri-purian zegoela- eta bonbarik ez zegoela egiaztatu eta gero, jende guztia sartu zen. Itoiz oholtzara atera zenean zirrarragarria izan zela dio Gorettik, diskoteka guztiak batera egin zuela gora. Sekulako kontzertu puska izan omen zen.

5 Taldeko gitarrista batek egun horretan ezin zuela jo eta Iparraldeko batek bere tokia hartu zuela oroitzen dute zaleek. Litekeena da Jean-Marie Ecay izatea. Orduan hasi zen Itoizekin.

6 Ilargin hirugarren aldiz 1986an edo 1987an aritu zen Itoiz, bere gorenean, eta zu han izan zinen. 14-15 urte izango nituen. Nire lagun baten ama diskotekako garbitzailea zen. Sukaldeko atea

jo eta Mikel kudeatzaileak kontzertuak ikusten uzten zigun. Ilargi sekulakoa izan zen gure belaunaldietarako; musika banda pila bat zuzenean ikusteko aukera eman zigun.

7 Kontzertuaren zer nolako oroitzapenak dituzu?

Bateria gogoan dut, Jimmy Arrabit, eta gogoan dut ere Juan Carlos Perez oso altua iruditu zitzaidala. Diskoteka topera, giro aparta... sekulako kontzertua izan zen. Itoiz taldea oso oso ona zen. Zuzenekoa asko lantzen zuten, oso talde profesionala zen.

8 Zein da Itoizen zure kanturik gustukoena?

Musikaz Blai diskoako *To Alice* oso gustukoa dut, baina ez nuke jakingo esaten. Kanta bat ona da, eta hurrengo hobea. Ez dute erdipurdiko kanturik. Disko oso onak egiten zituzten, eta denboran zehar maila horri eustea oso zaila da. Sekulako banda zen.

9 Eta entzuten badituzu badirudi ez direla modaz pasatzen, gaur egungo talde bat dela.

Bai, beti freskoak iruditzen zaizkit, gaur egungoak. Ez du ukitu nostalgikorik, ez dira garai bateko doinuak. Gaur egungo edozein bandak egin ahalko lituzke kanturik horiek, soinu horrekin. Izan ere, euren diskoek sekulako produkzio lana zuten.

10 2003an beste hainbat sardararekin sortutako taldeari Ambulance izena jarri zenioten, Itoizen kantu baten izena.

Bateratzen gintuen zerbait bilatzen saiatu ginen, eta denoi Itoiz gustatzen zitzaigula, hori izan zen lokarria, eta proposamen ezberdinen artean Ambulance aukeratu genuen. Bitxikeria bat: Itoizen lehen 3 diskoak produzitu zituen Jean Phocas soinu teknikariarekin grabatu genuen Ambulancen lehen diskoa.

11 Doxakoei utzi ahal diezun Itoizen oroigarrik ba al duzu?

Ez. Orduan ez zegoen mugikorrik, ordenagailurik... Ez dago ezer jaso, oroitzapenak besterik ez. Lakuntzar batek aipatu dit Itoiz Etxarrin ikusi zuela. Norbaitek argazki, bideo edo audiorik badu, Doxa Produccionesekin harremanetan jar dadila (*archivo@doxaproducciones.com*).

DISEINUA GRAFIKOA
MAKETAZIOA KARTEL PAPER **GINTZA KOMUNIKAZIOA**
IRUDI KORPORATIBOAK **ALDIZKARIAK**
EGUTEGIAK **AGENDA** **PUBLIZITATEA**
ROLL-UPAK **SARE SOZIALAK** JATETXE ENPRESA **EUSKARRIAK**
BISITA TXARTELAK **LONAK** PERTSONALIZATUTAKO FORMATU HANDIKO **EUSKARRIAK** **APLIKAZIOAK**
UDAL BULETINAK **WEB DISEINUA** **LIBURUAK**

619 821 436 · 948 564 275
 info@gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

gk DISEINUA GRAFIKOA
 WEB DISEINUA
 KOMUNIKAZIOA